

# Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



**Esther  
Larrañaga Galdós**

Ingurumen eta Lurralde  
Antolamendu Sailburua



**José Antonio  
Campos Granados**

Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailburua

2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak, Eusko Jaurlaritzak 2002ko ekainaren 4ko bilkuran onetsia, iraunkortasunerantz jotzeko beharrezko baldintzen artean zehazten du, herritarrak, administrazioa eta enpresak gaitu eta erantzukizuna partekatzea bultzatzea, beren jokabideak iraunkortasun handiagorantz aldatzeko xedez. Helburu hori lortzeko, Estrategiaren baitako helburutzat hartzen da hezkuntza-sisteman ingurumen-hezkuntzarako planak sustatzea.

Alde batetik, Ingurumena Babesteko Lege Orokorrek ezartzen duenez, ingurumen-politika gauzatzeko tresna gisa, euskal administrazio publikoek planak edo/eta programak landuko dituzte helburuak, epeak eta jarduera publiko eta pribatuak finkatzeko, organo arduradunak eta aurreikuspen ekonomiko-finantzarioak adieraziz.

Beste alde batetik, Johannesburgo-n 2002an egindako Garapen Iraunkorraren gaineko Mundu-mailako Gailurrean, berariaz jaso zen Iraunkortasunerako Hezkuntzazko hamarkada bat sustatzeko proposamena, herrialde bakoitza bere garapenerako beharrezko baliabideak izatea bermatzera bultzatuz. Gomendio hori benetako konpromiso bihurtu zen, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Mundu-mailako Gailurrean jarritako erronka onartu eta ondokoa erabaki zuenean: «... 2005eko urtarrilaren 1ean hasten den hamar urteko aldia Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada izendatzea».

Aipatutako konpromisoei eta iraunkortasunerako hezkuntzaren gaiko erronka berriei erantzuteko asmoz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak estrategia bat landu dute, «2007-2010 aldirako Iraunkortasunerako Ingurumen-hezkuntza Estrategia», eta horren helburua hezkuntza bultzatzea da Euskal Autonomia Erkidegoan etorkizun iraunkorragorantz jotzeko tresna eta bitarteko bezala.

*Gure esku dago*

Esther  
Larrañaga Galdós

José Antonio  
Campos Granados

ISBN 84-457-2508-4



9 788445 725085

Salneurria: 21 €

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



# Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn

Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko  
Hezkuntzaren Hamarkadari lotutako  
erronka berriak, 2005-2014

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

**Iraunkortasuneko** hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn : Nazio Batuen garapen iraunkorreko hezkuntzaren hamarkadari lotutako erronka berriak : 2005-2014 / [koordinazioa, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006

p. ; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: «Hacia un compromiso por la educación para la sostenibilidad en la CAPV ...»

ISBN 84-457-2508-4

1. Educación ambiental-Euskadi. I. Euskadi. Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. II. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. III. Título (castellano). 504:37.03(460.15)



**ARGITALPENA:**

1.a, 2006ko azaroa

**ALE-KOPURUA:**

1.000 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

**INTERNET:**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**ARGITARATZAILEA:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**KOORDINAZIOA:**

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza

**DISEINUA ETA DIAGRAMAZIOA:**

Canal Directo / [www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)

**FOTOKONPOSIZIOA**

**ETA INPRIMAKETA:**

RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

**ISBN:**

84-457-2508-4

**LEGE GORDAILUA:**

BI-3.077-06

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>1. ZATIA</b>	
<b>IRAUNKORTASUNEKO HEZKUNTZAREN ALDEKO KONPROMISORANTZ EAE-N</b> .....	9
1. Gizartearen erronka: iraunkortasunerantz aurrera egitea .....	13
2. Hezkuntza etorkizun iraunkorrerantz aurrera egiteko ikuspegi eta tresna gisa .....	17
3. Iraunkortasuneko hezkuntza: kontzeptua, printzipioak eta eragileak .....	19
3.1. Iraunkortasuneko hezkuntza kontzeptu berria al da? .....	19
3.2. Zein printzipiotan oinarritzen da iraunkortasuneko hezkuntza? .....	21
3.3. Zein eragilek esku hartzen du iraunkortasuneko hezkuntzan? .....	22
4. Hezkuntza politiken gainean hausnartzeko konpromisorantz .....	27
<b>2. ZATIA</b>	
<b>2006-2010 ALDIRAKO EAEREN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO IRAUNKORTASUNEKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA</b> .....	31
1. Egoeraren diagnostikoa. Ondorio nagusiak .....	37
1.1. EAEko ingurumen hezkuntzan lortutakoak .....	38
1.2. EAEko ingurumen hezkuntzako erronkak .....	41
2. Planaren xede, helburu eta printzipio gidariak .....	43
3. Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planaren ekintza konpromisoak, hezkuntza-sistema formalean, 2006-2010 ..	45
4. 2006-2010 aldirako EAeren hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planaren lerroak, programak eta neurriak .....	49
4.1. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema .....	50
4.2. Unibertsitateko hezkuntza-sistema .....	62
5. Planaren jarraipena eta ebaluazioa .....	75
<b>ERANSKINA. DOKUMENTUA LANTZEKO PROZEDURA</b> .....	79
<b>TERMINOEN GLOSATEGIA</b> .....	81
<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	85



# AURKEZPENA

Dokumentu hau iraunkortasuneko hezkuntza laguntzeko eta sustatzeko sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) etorkizun iraunkorragorantz aurrera egiteko tresna gisa. EAEk iraunkortasunarekin duen konpromisoari erantzuten dio, eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiatik (2002-2020) sortutako politikaren, programen eta ekintzen osagarri dugu.

Horretarako, honako hauek ditu helburu:

- Iraunkortasuneko hezkuntzaren kontzeptuan sakontzea.
- EAE Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Hezkuntzaren Hamarkadaren esparruan (2005-2014) kokatzea.
- EAEko erakundeek iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa hartzeko bidean aurrera egitea.
- Hezkuntza-sistema formalean Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana zehaztea, EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren konpromisoaren arloko ekarpen gisa.

Zeregin konplexua eta asmo handikoa izan arren, da, dokumentua irakurterraza, ulergarria eta arina izan dadin saiatu gara; baina ez bakarrik hori, izan ere, gaur egun EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren kontzeptualizazioaren eta aplikazio

zehatz eta praktikoaren artean oreka ere lortu nahi izan dugu.

Hori dela eta, dokumentua ongi bereizitako bi zati hauek osatzen dute:

- Lehenengoak iraunkortasuneko hezkuntzaren kontzeptua testuinguruan jarri, eta hausnartarako eta eztabaidarako elementuak ematen ditu. Era berean, EAEko erakundeek iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa hartzeko oinarriak ezarriko ditu.
- Bigarrenak, berriz, 2006-2010 aldirako EAEn hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana izango dena aurkezten du. Alegia, ingurumen hezkuntzak eta hezkuntza-sistema formalak (unibertsitate-sistema zein besteak) beren plangintza zein ekintza operatiboen bidez egiten dioten ekarpena EAEk iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoari.

Azpimarratu beharra dago, eranskinean esan bezala, dokumentu hau sortu dela, EAEn iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza bultzatu nahi duten zenbait pertsonak, erakundek zein taldek lankidetzan egindako hainbat azterketa, hausnarketa eta eztabaidaren ondorioz.

Azkenik, bukaeran terminoen glosategia eta erreferentzia bibliografikoak jaso ditugu.





# I. zatia

Iraunkortasuneko  
hezkuntzaren aldeko  
konpromisorantz EAEn



Egin ezazu lehenik beharrezkoa dena, ondoren ahal duzuna, eta bat-batean ezinezkoa dena egiten ikusiko duzu zeure burua

## San Frantzisko Asiskoa

Sail honen helburua EAEko erakundeek iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa harzen laguntzea da.

EAEn gero eta garapen iraunkorragoa lortuko bada, aipatutako konpromisoa beharrezkoa dugu; eta konpromiso hori aurrera eramateko ezinbestekoa da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) garatzetik, planifikatuzetik eta kudeatuzetik lortutako emaitze-kin batera koordinatzea.

Azken batean, iraunkortasuneko hezkuntzak iraunkortasun-ekintzak bultzatu ditzake, eta behar diren gaitasuna, jarrera, trebetasunak, jakinduria eta balioak sustatu ditzake; eta, modu horretan, pentsamolde eta baliabide berriak, lehengo osagarriak, bideratu ahal izango ditu.

Horregatik guztiarengatik lortu nahi da EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa. Prozesu horrek azken hogeitun urteotan ingurumen hezkuntzan hainbat erakundek egin duten lana eta ahalegina nabarmendu eta horien balorea indartu nahi ditu, hala nola: Eusko Jaur-laritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu

Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Ingurugelen bitartez), foru aldundiak, udalak eta mankomunitateak, ingurumen hezkuntzako ekipamendu eta enpresak eta beste erakunde batzuk.

### Izan ere, iraunkortasuneko hezkuntza(k)

—Gizartearen erronka bati erantzuten dio: EAEn iraunkortasunerantz aurrera egitekoari.

—Gizartearen garapenerako bide berriak bilatzeko baldintza da.

—Ondo zehaztutako eta argudiatutako pentsamolde berri bat dugu, iraunkortasuneko planifikazio eta kudeaketa politika berriak osatzen dituen.

—Hezkuntza-politikak, programak eta praktikak berorientatzean gauzatzen da praktikan.

Argudio horiek EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoaren oinarri dira eta modu zehatzago batean aztertzen dira jarraian.



# 1. KAPITULUA

## GIZARTEAREN ERRONKA: IRAUNKORTASUNERANTZ AURRERA EGITEA

### EAE-REN KONPROMISOA IRAUNKORTASUNAREN ALDE

EAEk, azken urteotan, garapen iraunkorraren aldeko konpromiso politikoa eta ekintzarako konpromisoa hartu ditu.

1998an ateratako Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra izan zen iraunkortasunaren helburuei erreferentzia zehatza egiten dien EAEko lehen dokumentu ofizialetako bat; lege horren bidez, «EAEen garapen-eredu iraunkorra ezartzeko konpromiso sendoa hartu zen, hain zuzen ere, gaur egungo beharrak asetzeko gai den garapena eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarriko ez duena». 2001ean, lehendakariak sustatuta, konpromiso hori argiago adierazi zen borondatez atxikitako dokumentu batean.

2002ko ekainaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) onartu zuen 2002-2006rako lehen Ingurumen Esparru Programarekin batera, eta, hala, EAEren ekintzarako erreferentzia-esparrua ezarri zuen, aurrez zehaztutako bost ingurumen-xedetan oinarrituta:

- Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
- Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
- Natura eta biodibertsitatea babestea.
- Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
- Klima-aldaketarekiko eragina mugatzea.

Ingurumen-izaera nabarmena duen estrategia da, eta iraunkortasunaren ingurumen-ikuspegia azpimarratzen du, batik bat; arlo sozio-ekonomikoari ere erreferentzia egiten dio sistemak dituen erlazio konplexuak direla-eta.

Gaur egun, EAEko ingurumen-politika eta —jarduerak EAEren lehen Ingurumeneko Esparru Programak (2002-2006) zehazten du, eta erreferentziatzat bost ingurumen-xedeak, hartutako konpromisoak eta iraunkortasunerantz aurrera egiteko beharrezko kondizioak hartzen ditu. Ingurumen Esparru Programaren ezarpena bi alderditatik garatzen da: bata administrazio publikoa inplikatzeko, eta besteak eragile sozio-ekonomiko guztien partehartze aktiboa eskatzen du (lehentasuna duten sektoreetatik abiatuta; hauek dira: lehen sektorea, industria, eraikuntza, energia, garraioa eta etxeko kontsumoa).

GARAPEN IRAUNKORRA  
ETENGABEKO  
ESTRATEGIATZAT HARTU  
BEHAR DA, BEREHALA  
ETA SENDOTASUNEZ ETA  
SEGURU JARDUTERA  
BEHARTZEN DUEN  
ESTRATEGIATZAT.  
IRAUNKORTASUNERANTZ  
AURRERA EGITEAK  
ESKATZEN DU  
INGURUMEN-ABANTAILAK  
ETA ABANTAILA  
SOZIALAK, EKONOMIKOAK  
ETA KULTURALAK  
BILTZEA ETA  
ONDORENGOEI UZTEA.

EAEko iraunkortasunaren aldeko konpromisoa. 2001



## **KONPROMISOAK ALDATZEKO BEHARRARI ERANTZUTEN DIO: ALDAKETA GLOBALARI ZEIN TOKIKOARI**

Aurrerapena —garapen izenarekin ere ezagutzen da— kontzeptu anbigua da bere ohiko ikuspuntutik begiratuta.

Batetik, ezin da ukatu garapenak pertsonen bizi-kalitatea hobetu duela, kontuan hartuta bizi-kalitatea oinarritzko behar hauek asetzeko eskubidea bere gain hartzen dituen kontzeptua dela: osasuna, hezkuntza, kultura, behar adina elikagai eta bizitza duina, ingurumen osasuntsua eta egonkorra, justizia eta duintasuna, genero-berdintasuna, etab.

Bestetik, garapen-eredu tradizionaletik eratorritako hobekuntza ez da orekatua izan planetako biztanle guztientzat, eta eskualde guztiek ez diote etekin bera atera. Gainera, onurak ez dira beti doakoak izan, aldagai ekonomiko eta monetarioetan (hazkundearen ikuspegitik) oso oinarrituta dagoen garapenak batzuetan euskarri-sistema naturalak eta oinarritzko giza eskubideak errespetatu gabe egin baitu aurrera.

Errealitateari planeta mailan egiten badiogu so, irudiek hau transmitituko digute:

- Desberdintasun sozialak eta ekonomikoak; iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko alde handitzen ari da; herrialdeetan barne-diferentziak areagotzen ari dira.
- Bizitza hobea lortzeko immigratzen duten pertsonak garrantzi handiko fenomeno bihurtzen ari da.
- Biodibertsitate natural zein kulturala galtzeko erritmo gero eta azkarragoa.
- Gerrek —batzuetan hamarkadetan irauten dute— interes ekonomikoengatik eta baliabide naturalengatik borroka (hala nola: ura, lurraldeak) ezkututzen dituzte.

— Oreka natural globalaren egoera ordezkatu duela dirudien baliabide eta sistema naturalekiko presioa. Alarma-argiak piztu dira: berotze globala, ozono-geruzako zuloa, hondakin- eta poluzio mota guztien ugaritzea, etab. Ezagutzen ez diren eragin eta ondorioen aurrean zuhertasun-printzipioa aplikatzeko aholkuak amore ematen du neurri zuzentzaileen alde.

— Ekonomia globalizatzearen ondorioak.

Gizateriaren historian lehenengo aldiz, globalitateaz eta gure ekintzen inpaktuaz dugun kontzientziak eragiten digu ondorio itzulezinak saihesteko moduan jardutera [...] izan ere, bestela, ondorio horiek gure ondorengo eskubideak mugatu eta baliogabetu ditzakete. Hori dela eta, itzulezintasunaren printzipioak, itzulerarik ez duten puntuak lortzearen printzipioak, eskatzen du moralki erabakiak garai hartzeko, aldaketa kontrolaezinetan izan ditzaketen joerak zuzentzeko beranduegi izan aurretik. Hori lortzeko, nahitaezkoa da zaintzea, aurrea hartzea eta prebenitzea. Gure aroan, prebenitzea ez da aukera bat soilik, baizik eta saihestu ezin den betebeharra eta agindu etikoa. Etorkizuneko belaunaldien eskubideak ziurtatu behar dira.

Federico Mayor Zaragoza

Hemen ondoan ere badaude zenbait arazo konpontzeko. Garapen-bidean dauden beste eskualde eta herri batzuen beharrekin konparatuz gure abiapuntu-egoera globala oso ona izan arren, EAEn lortutako hobekuntzan (aurrerapean, erosotasunean, ongizatean lortutakoan) errealitate eta arazo batzuk ezkutuan geratzen dira, eta horiei buruz hausnartu egin behar du eta erantzuna eman behar die EAEko gizarteak.

— Pobrezia eta gizarte-bazterketa (estatistika-datuaren arabera, EAEko biztanleriaren % 2,1 pobrezia mugaren azpitik bizi da).

— Norberaren balio, tradizio eta kultura espezifikoak galtzea, bizimodua globalizatzearen eta homogeneizatzearen ondorioz.

- Indibidualismoa; bakardadea; konformismoa eta inmovilismoa; borondatea eta parte hartzeko kultura galtzea.
- Boterea, dirua, irudia, itxurak eta kontsumoa dira pertsonen balorazio-hierarkian lehentasuna dutenak, hezkuntza, jakintza eta esperientzia bezalako beste balio batzuk nabarmendu beharrean.
- Ekonomia tradizionalaren eraldatzea eta lan-munduko aldaketak: lehen sektorearen krisia; beste sektore batzuetako eta enpresa-arloko ziurgabetasunak munduko ekonomia-egoera berriaren aurrean; laneko prekaritatea edo diskriminazioa.
- Hiriguneen degradazioa, etxebizitzak eskuratzeko arazoak, eremu eta ondasun naturalak galtzea, ingurunearen antropizazioa.
- Sistema naturalen kutsadura eta degradazioa.
- Landa-eremuak uztea, suburbanizazioa, biztanleriaren kontzentrazioa hirietan eta hirien inguruan.
- Biztanleria zahartzea, jaiotza-tasa baxua, buruko gaixotasunen eta gizarte-laguntzako beharren handitzea...

### **IRAUNKORTASUNA: ALDAKETARAKO AUKERA**

Hala, *aldaketa sakon baten beharra* dagoela ikusita, iraunkortasunaren kontzeptua aldaketarako aukera moduan 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera indartuz joan da. Kontzeptu horrek hainbat eztabaida eragin ditu, ordea; eta erabilera anitzeko termino bilakatu dela dirudi, edozein testuinguru, helburu, arrazoibide edo korrante ideologiko-politikotarako balio duen termino.

Gainera, baliteke iraunkortasunaren definizio bakarra ez egotea, eta, ondorioz, hainbat ikuspegiren mende egotea. Iraunkortasuna kontzeptu nahasia da bere horretan aztertzean; zentzua hartzen hasten da gai jakinetan aplikatzen denean, besteak

beste, lurralde-kudeaketan, baliabideen, kokalekuen edo zerbitzuen kudeaketan... Hitzaren erabilera, ordea, aurrez zehaztutako esanahirik gabe, abiapuntua zehazteko aukera emango duen hausnarketa filosofikoa egitea eskatzen du, banakakoa zein kolektiboa.

1987an, Garapenari eta Ingurumenari buruzko Munduko Batzordeak egindako Brundtland txostenean proposatzen den definizioa da interpretaziorik ezagunena.

Garapen iraunkorra deritzo gaur egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapenari, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Azken batean, iraunkortasunak honako printzipio hauek onartzea eta aplikatzea dakar:

- Oso garrantzitsua da, ahal den guztietan, baliabide berriztagarriek berriztagarriak ez diren baliabideak (alegia, beren kabuz berritzen ez direnak) ordezkatzeko, mugatuak baitira. Horrek eragina du, besteak beste, baliabide energetikoetan, lurraldean, uretan, etab.
  - Gure bizimoduari eusten dion sistema naturalak mugatuak dira (ekosistemak) eta horietan, hain zuzen, jasaten dituzte giza ekintzen ondorioak —mota guztietako kutsadura eta hondakinak—. Horrek jardura ekonomikoetan eta gizartean eragin zuzena du, kontuan hartuta, behintzat, egungo mugikortasun-, kontsumo-, produkzio-eredua.
  - Erabakiak hartzeko orduan, faktore ekonomiko zein giza eta ingurumen-faktoreen arteko harremana egotea; izan ere, iraunkortasunaren alde eta epe luzerako jardun nahi badugu, faktore guztiek izan behar dute multzo baten parte.
  - Gaur egungo gizartearen eta datozen belaunaldien oinarritzko beharrak asetzea.
- «Toki zehatzean pentsatzea eta jardutea» eta «orokorrean pentsatzea eta jardutea» goiburua osagarriak izan daitezkeela eta izan behar dutela





kontuan hartuz, eta, beraz, planetako gainerako errealitateen ikuspegi globala eta solidarioa galdu gabe, EAEn agertoki iraunkorragorantz aurrera egiteko hainbat politika eta jarduera-arlo hartu behar dira kontuan: gizarte-arlotik arlo ekonomikoraino, ingurumenaren euskarritik igaroz.

Osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, lurralde-antolamendua, garraioa, etxebizitza, ekonomia eta jarduerak, enplegua, ura, energia, hon-

dakinak, ingurumen-kalitatea, kultura, emakumea, justizia, turismoa... Ekintza-eremu horietan diseinuaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren funtsezko oinarrietan egon behar du iraunkortasunaren irizpideak, eta zeharkako izaera izan behar du.

Horrenbestez, *iraunkortasuna etorkizunerako hautabide gisa, aukera gisa ikus daiteke; garrantzitsuena ez da izena, baizik eta helburuak eta kontzeptualizazio teorikoa.*



## 2. KAPITULUA HEZKUNTZA ETORKIZUN IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEKO IKUSPEGI ETA TRESNA GISA

Iraunkortasunaren plangintzako eta kudeaketako politikaren arrakasta, politika horrek arlo horretan sartuta dauden eraginaren menpe dago eta, beraz, pertsona horien sentikortasunaren eta prestakuntzaren menpe. Iraunkortasunerantz aurrera egiteko, beharrezkoa da gero eta pertsona gehiago jabetzea termino horrek duen garrantziaz —balio eta jarrera implizituak— eta horren eraginez jardutea. Horregatik, iraunkortasunaren kultura planetario berriaren sortze-prozesuan, hezkuntza (adiera zabalean) funtsezko elementua da.

Erantzukizunak hartzeko, jarrerak aldatzeko eta balio eta ohitura berriak hartzeko funtsezko elementua da hezkuntza; bere horretan helburu bat izatek haratago doa. Hezkuntza pertsonak sentsibilizatzeko, hezteko eta gaitzeko tresna da erabakiak hartzeko eta iraunkortasunerantz bidea egiterakoan.

Azken batean, hezkuntza baldintza gisa azaltzen da iraunkortasunerako etorkizun berri bat moldatzeko beharrezkoa den eraldatze- eta aldatze-prozesuan. Hala zehaztu dute espresuki nazioarteko xosten batzuk.

Gaitasunaren sustapenak herrian hasi behar du, eta gobernuak eta gobernuak kanpoko

erakundeek osatu behar dute, hezkuntza garapena sustatzeko baliabide gisa erabilia. Hezkuntzaren eta gaitasunaren sustapena bata bestearekin lotu behar dira lana lekuan bertan eginez, giza baliabideak eta jakintza teknikoak eraginkortasunez transferitu ahal izateko.

Garapen Iraunkorraren  
Munduko Goi-bileraren txostena.  
Johannesburg. 2002

### **NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZAREN HAMARKADA 2005-2014**

Etorkizun iraunkorrerako aldaketa-prozesuan hezkuntza funtsezko elementu gisa hartzea ez da kontu berria.

Onartuta dago izaera unibertuala duen kalitatezko hezkuntza bermatu beharra dagoela, izan ere, oinarriko baldintza dugu gizakien identitatea erakitzeke eta modu integralean garatzeko. Ildo horri jarraituz, eta kontuan harturik iraunkortasunak funtzionamendu-eredu berri bat eraikitzeke oinarria izan behar duela pertsonen eta gizartearen eta

HAINBAT ARAZORI  
KONPONBIDEA  
AURKITZEKO,  
ALDAKETAK EGIN BEHAR  
DIRA GUREGANDIK  
OSO HURBIL DAGOEN  
INGURUNEAN: GURE  
KOMUNITATEETAN,  
GURE KALEETAN,  
GURE BIZIMODUAN  
ETA ERABAKI  
PERTSONALETAN.

Kofi Annan, Garapen  
Iraunkorrerako Eskualdeko  
Gobernuen Biltzarra.  
(Donostia) 2003



euskarri diren sistema naturalen artean bizikidetzaren harmonikoa lortzeko, hezkuntzaren funtzioa sendotu egin da orain. Hain zuzen, gizakiari dagokio aldaketaren erantzukizuna bere gain hartzea, eta hori ezinezkoa izango da hezkuntzarik gabe.

1992ko Rioko goi-bileran (garapen iraunkorra kontzeptuaren historia berri mugarririk garrantzitsuenetakoa), 2002rako Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Estrategia sustatzeko, garatzeko eta ezartzeko eskatu zitzaizkien herrialde guztiei. Urte horretarako herrialde gutxi batzuek bakarrik zuten diseinatuta estatu-mailan prozesu horretan aurrera egiteko esparru estrategiko bat.

Horregatik, eta hezkuntzak errealitate lokala eta globala aldatzeko prozesuan duen funtzio nagusia eta lehentasunezkoa onartuz, 2002an Johannesburgen egin zen Garapen Iraunkorraren Munduko Goi-bileran Iraunkortasunerako Hezkuntza Hamarkada sustatzeko proposamena egin zen espresuki, eta herrialdeei eskatu zitzaizkien garapen horretarako beharrezko baliabideak bazituztela bermatzeko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiari *2005etik aurrera garapen iraunkorrerako hezkuntza hamarkada* antolatzeke aukera kontuan har dezan gomendatzea.

Garapen Iraunkorraren  
Munduko Goi-bilerako txostena.  
Johannesburg (Hego Afrika, 2002)

Gomendio hori benetako konpromiso bihurtu zen, munduko goi-bileran ezarritako erronka onartu baitzuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak.

Batzar Nagusiak,

Hamar urteko epea aldarrikatzea erabaki zuen. Epe hori 2005eko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Hamarkada izena izango du.

Hamarkada hori hezkuntzarekin lotutako ekintza-planetan eta plan estrategikoetan aplikatzeko neurriak hartzeko gonbita egiten die gobernuei, gehienez 2005erako, eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) prestatu behar duen nazioarteko aplikazio-plana kontuan hartu beharko dute.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak  
onartutako 57/254 Ebazpena,  
2002ko abenduaren 20a

Herrialde kideei gomendatzen zaie iraunkortasuneko hezkuntza sustatu, garatu eta estrategia nazionaletan eta/edo eskualdeko estrategietan sar dezatela; era berean, Nazio Batuen Garapen Batzordeari programan egindako aurrerapenen berri eman beharko diete.

### 3. KAPITULUA

## IRAUNKORTASUNEN HEZKUNTZA: KONTZEPTUA, PRINTZIPIOAK ETA ERAGILEAK

### 3.1. IRAUNKORTASUNEN HEZKUNTZA KONTZEPTU BERRIA AL DA?

Garapen iraunkorrerako hezkuntza ez da kontzeptu edo programa berri gisa sortu. Alderantziz:

- Lehendik dauden hezkuntza-politikak, -programak eta praktikak berriro bideratzeko eta antolatzeko aukera gisa.
- Horiei esker, hezkuntzak lagun dezala gizarte-kide guztien gaitasunak, trebetasunak, jarduerak eta konpromisoak hartzen tokiko ikuspuntutik eta ikuspuntu orokorretik.
- Etorbizun iraunkorraren eraikuntzan batera lan egiteko.

Hori dela eta, iraunkortasuneko hezkuntzak beste hezkuntza-proiektu batzuekin lotura estua du eta haien helburuak partekatzen ditu, besteak beste, guztiontzako hezkuntza, genero-berdintasunerako hezkuntza, bakerako hezkuntza, tolerantziarako eta kultur aniztasunerako hezkuntza, eta abar, eta *ingurumen hezkuntza da bere erroa eta aitzindaria*.

Ingurumen hezkuntzaren definizioa mugatzen erraza ez bada ere, kontzeptua modu honetan laburbil daiteke:

Ingurumen hezkuntza etengabeko prozesua da, eta prozesu horretan, bai norbanakoak, bai komunitateak ingurumenaren kontzientzia eskuratzen du; halaber, gaur egungo zein etorkizuneko ingurumen-arazoak konpontzeko beharrezkoak diren ezagutza, balioak trebetasuna, eskarmentua eta adorea jasotzen ditu.

Ingurumen Hezkuntzako  
eta Prestakuntzako Nazioarteko  
Biltzarra. Mosku, 1987

Azken batean, betidanik ingurumen hezkuntzari lotu izan zaizkion oinarrietako batzuk honako hori egiten diote erreferentzia<sup>1</sup>:

- Prozesu bati.
- Informazioa emateko eta prestakuntza errazteko ondo planifikatutako ahalegina hartzen du bere baitan prozesu horrek.

<sup>1</sup> ¿Qué es educación ambiental? testutik ateratakoa. Egilea: N.J. Smith-Sebasto.

BIHOTZAK, BURUAK  
ETA ESKUAK  
BEREGANATZEA DA  
IRAUNKORTASUNEN  
HEZKUNTZAREN  
ERRONKA.

*See change: learning and education for sustainability.*  
Zeelanda Berria, 2004



- Benetako balioa duten datu zientifiko eguneratuetan oinarritua da, baita herri-sentimenduan ere.
  - Jarrerren, iritzien eta usteen garapenean laguntzeko diseinatua.
  - Jarrera, iritzi eta uste horiek, era berean, jokatibide iraunkorrak hartzen laguntzen dute eta.
  - Norbanakoarentzat zein taldeentzat gidari dira.
  - Beren bizimodua bizi dezaten, hazkuntzakoak zaindu ditzaten, produktuak fabrikatu, ondasunak erosi, teknologia gara dezaten, etab.
  - Jatorrizko ingurunearen edo eskualde baten ezaugarri naturalen degradazioa ahalik eta txikiena izan dadin, baita uraren edo luraren kutsadura ere; edo arriskuan dauden landare zein animalia-espezieak ahalik eta gutxien mehatxatu.
- Aurrekoa guztia kontuan hartuta, eta ikuspegi teoriko eta kontzeptualetik begiratuta, behintzat, ondoriozta daiteke ingurumen hezkuntza dela iraunkortasuneko hezkuntzaren aitzindaria.
- Horri dagokionez, esan beharra dago ingurumen hezkuntza ezarri eta garatu ondoren, *zenbait muga* ikusi zirela. Muga horiek gainditzeko asmoz egin da iraunkortasuneko hezkuntzarako bidea. Horien artean esanguratsuenak honakoak dira:
- Hezkuntza adjektibatua osatzea. Ingurumena batzuetan naturara soilik mugatua izan da, eta nagusiki ikasleei bideratua.
  - Iraunkortasunak eskatzen duen ikuspegi orokorrean eta integratuan oinarritu ez izana, batez ere, arlo ekonomiko, sozial eta ingurumeneko arteko kausa-ondorio erlazioari dagokionean.
  - Ez da guztiz lortu iraunkortasunaren inguruko ezagutza (bereziki ingurumen-izaera duena), ekintza eta praktika iraunkorretan bideratzea.
  - «Gaurko» eta «atzoko» azterketan oinarritzea, «biharko» pentsatu, planifikatu eta lan egin beharrean.

## Zein da iraunkortasuneko hezkuntzaren jardute-eremua?

Garapen iraunkorrerako hezkuntzak banakoak eta gizarte-taldeak prestatu eta bultzatzen ditu gure bizimoduari buruzko gogoetan, informazioan oinarritutako iritzietan eta mundu iraunkorragorantz joateko bideak ezartzean. Iraunkortasuneko hezkuntzak aldatzen ikastea adierazten du, bai helduek eta bai gazteek.

UICNren Hezkuntza eta Komunikazio Batzordearen (HKB) Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Hamarkadari buruzko dokumentua

UNESCOK dokumentu bat egin du Iraunkortasuneko Hezkuntzaren Hamarkada nazioartean aplikatzeko, eta bertan lehentasunezkoak diren *lau eremu* aipatzen dira garapen iraunkorreko hezkuntzari begira:

- *Hezkuntza sustatzea eta hobetzea*, iraunkortasuna aintzat hartuko duen bizimodua sustatze aldera, etengabeko ikaskuntzaren bidez, jakintza, trebetasunak, balioak eta ikuspegiak partekatzea.
- *Lehendik dauden hezkuntza-programak berriro bideratzea*. Horretarako, curriculumak berrikusi behar dira (helburuak, iraunkortasuna zeharka ezartzea...) eta etengabeko ikaskuntza (bizitza osoan garatu beharrekoa) bultzatu behar da.
- *Kontzientzia publikoa garatzea eta iraunkortasunaren ulermenean sakontzea*. Alderdi eta gatazka ekonomiko, sozial eta ingurumenekoei buruzko kontzientziaren areagotzea eraldatu egin behar da eta horren zergati primarioei buruzko hausnarketa bihurtu, ondoren iraunkortasuna aintzat hartuta bizitzeko eredu berriaren ondorioak eta eskakizunak toki mailan nahiz maila orokorrean zehazteko. Horrek guztiak, denei bideratutako hezkuntza komunitarioa eta konpromisoa hartzen duten komunikabideak eskatzen ditu.
- *Prestakuntza eta trebakuntza*: sektore guztiek har dezakete parte tokiko, eskualdeko zein es-

tatuko iraunkortasuna bultzatzen. Horretarako, aipatutako sektoreek beharrezko ezagutza eta trebetasunak eskuratu beharko dituzte eredu iraunkor baten alde erabakiak hartzeko eta lan egiteko.

Azken batean, ikuspegi holistikoa, globala eta integratua beharrezkoak dira iraunkortasuneko hezkuntzak esleitzen zaizkion jarduera-erronkak bere gain har ditzan.

### 3.2. ZEIN PRINTZIPIOTAN OINARRITZEN DA IRAUNKORTASUNEKO HEZKUNTZA?

Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Hamarkadaren esparrutik sortutako pentsamolde eta eztabaidaren ondorioz, iraunkortasuneko hezkuntzaren honako zazpi oinarriak ezarri dira:

- Ekintza eta aldaketarako hezkuntza.
- Hausnarketa kritikoa.
- Ikuspegi integratua.
- Balioen hezkuntza.
- Etorkizuneko ikuspegia, etengabeko ikaskuntza eta aurkikuntza.
- Esperientzietan eta ekintzan oinarritutako ikaskuntza.
- Parte-hartzea.

#### 1. Ekintza eta aldaketarako hezkuntza

Helburua ez da jakintza eta trebetasunak soilik eskuratzea; horretaz gain, heziketak ohiturak eta jarrerak aldatu beharko ditu. Iraunkortasuneko hezkuntzaren helburua da, azken batean, pertsonen —banakoen nahiz taldeen— parte-hartze aktiboa lortzea eredu iraunkorrerantz bidea egiteko.

Laburbilduz, iraunkortasunerako konpromisoa hartzeko, hezkuntzak portaera arduratsuak sustatu behar ditu ezbairik gabe, aldeko iritzi soilak baino haratago. Portaera horiek ez dira esparru indibidualera soilik mugatu behar, aldiz, beste arlo batzuetara zabaldu behar dira, hala nola arlo profesionala, politikora eta gizarte-arlora; hala, komunitate osoak erronka bere gain hartuko du.

#### 2. Hausnarketa kritikoa

Jarduera-segmentu guztietan gizabanakoen eta kolektiboen portaera-jarraibideak eta ohiturak aldatzeko ikuspegi eta jarrera kritikoaaren sustapenean sakondu behar da egungo ereduaren aurrean. Gizabanako eta gizarteko talde guztiek beren jardueretik etengabeko hausnarketa eta pentsamendu kritikoa izan dezatela sustatu behar du iraunkortasuneko hezkuntzak.

Halaber, sormena, hausnarketa baikorra eta, talde-hausnarketa zein eztabaida dira aldaketarako eta gizarte eraldatzeko osagarriak, batik bat, hezkuntzaz ari garenean. Horiexek ditugu iraunkortasunarekin lotuago dauden ideia berriak eta egungo errealitatearen ordezkioak sortzeko baliabideak.

#### 3. Ikuspegi integratua

Hainbat ikuspegi hartu behar dira kontuan: iraunkortasuna pertsona guztientzat eta jarduketara-esparru guztietan.

Batetik, zentzugabea litzateke batzuentzat bakkarririk izango den (eta ez guztientzat) gizarte iraunkor baten alde lan egitea. Komunitate osoa dago prozesuan inplikaturik, tokikoa zein globala. Iraunkortasuneko hezkuntzaren eragin-esparruak tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko mailak barne hartzen ditu, eta horretarako gai izan behar du testuinguru espezifikoa zein agertoki globaletan kokatzeko. Ondorioz, iraunkortasuneko hezkuntza —bere ikuskera eta orientazioa direla medio— herriko sektore guztiei, adin, etnia eta genero guztietako taldeei eta hezkuntza- eta gizarte-maila guztiei zuzentzen zaie. Horien guztien parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da etorkizuneko agertoki berrirantz aurrera egiteko.

Ildo beretik, ez du zentzurik iraunkortasunaz hitz egiteak alderdi sektorialak edo gai jakin batzuei buruzkoak soilik kontuan hartuta. Gizarte-alorren, alor ekonomikoaren eta ingurumenekoaren arteko erlazioak; sinergiak; zuzeneko eta zeharkako inpaktuak; kausa-ondorio harremanak; efektu eta ekintzen ziurgabetasunak... horiek guztiak ikuspegi integratua eta integratzailea eskatzen dute.





#### 4. Balioen hezkuntza

Elkartasuna, entzutea eta elkarrizketarako jarrera, ulermena, ekimena, tolerantzia, optimismoa, onartzea, aberastasunaren aniztasuna baloratzea, kuriositatea eta abar pertsonen hezkuntza elikatze-ko oinarritzko balioak dira; osorik gara eta haz daitezten; gizalegez jokatzen ikasteko.

#### 5. Etorbizuneko ikuspegia, etengabeko ikaskuntza eta aurkikuntza

Oraingo garapen-ereduak epe motzerako ikuspe-  
gia sustatzen du, beharrak eta arazoak berehala bete behar dituen ikuspegia, etorkizuneko belaunaldiei baino uneko egoerari balio askoz handi-  
goa ematen diona. Ikuspegi hori ez dator bat iraunkortasunarekin, gizartearen parte-hartzearekin, eta epe luzerako hezkuntzarekin zein ikas-  
kuntzarekin.

Etorbizun berrirako bideari ekitea ezinezkoa izan-  
go da epe luzerako ikuspegi gabe; alegia, den-  
boran iraunkorra, luzea, izango den ikuspegi-  
gabe.

#### 6. Esperientzietan eta ekintzan oinarritutako ikas- kuntza; lehendik dagoen aberastasuna baloratzea; errealitatearekiko lotura

Ikasteko modurik egokiena jardutea da, egitea. «Entzuten dena, ahaztu egiten da; ikusten dena, gogoratu egiten da; praktikatzan dena, ez da inoiz ahazten.» Hori dela eta, erretorika eta kon-  
zeptualizazio teorikotik praktikara pasatu behar da, eta asmo onetatik, esperientzietara. Praktikak ikaskuntzaren oinarrietako bat izan behar du.

Horri dagokionez, ez da zerotik abiatzen. Iraunkor-  
tasuneko hezkuntza kontzeptu berria ez denez, irizpide eta helburu berdinekin dagoeneko garatu diren esperientzia eta ekintzetatik ikastea, horiek onartzea, baloratzea eta berreskuratzea beharrez-  
koa da.

Praktikaren eta hezkuntza-jardueraren aberasta-  
suna iraunkortasunerako oso garrantzitsua dela erakutsi digute ebidentziak. Hainbat urtean, herrialde ugari-  
tako gizabanakoek, irakasleek, lan-

munduak, gizarteko taldeek, enpresek, adminis-  
trazio publikoek, boluntarioek eta beste hainba-  
tek aurrerapausoak eman dituzte bide egokian. Prozesuaren esperientzia berreskuratzea eta ba-  
lioestea oinarritzkoa da prozesuak jarrai dezan.

#### 7. Parte-hartzea

Eraginpeko pertsonen eta komunitateen hitza nahi-  
taezkoa da etorkizun iraunkorra diseinatzeko. Ager-  
toki berrirantz aurrera egiteko guztion parte-hartze  
aktiboa beharrezkoa baldin bada, parte-hartzea al-  
daketarako tresna gisa hartzen duen esparrua ezartzea eta berraketa ezinbesteko baldintza izan-  
go da.

Aldaketarako eta iraunkortasunerantz aurrera egi-  
teko, funtsezkoak dira afektua, partaide izatearen  
sentimendua, potentzial eta gaitasunen garapena,  
energia, ilusio eta ahaleginen mobilizazioa eta bes-  
te pertsona, ideia edo errealitateekiko ulermena  
funtsezkoak dira, horiek guztiak jarrera parte-har-  
tzailearekin lotura baitute.

### 3.3. ZEIN ERAGILEK ESKU HARTZEN DU IRAUNKORTASUNEN HEZKUNTZAN?

Iraunkortasuneko hezkuntzaren analisisian eta  
arrazoiketan egin beharreko galdera da «nork?». Nork hezten du? Nork ikasten du? Pentsa daite-  
ke iraunkortasuneko hezkuntza ikastetxei soilik  
dagokien xedea eta funtzioa dela?

Hasiera batean, tokiko iraunkortasunean (eta, be-  
raz, iraunkortasun globalean) eragina duten ekin-  
tzak egiten dituzten pertsona guztiak parte hartu-  
ko lukete. Horrek unibertso zabala definitzen du.  
Ondorioz, iraunkortasuneko hezkuntzak komuni-  
tate bateko kide guztiei bideratua izan behar du  
eta guztien artean landu behar da, horiek guztiak  
ingurunearen garapen iraunkorarekin elkarreragi-  
nean jarduten baitute eta hari eragiten baitiote  
nola edo hala.

Iraunkortasunerantz aurrera egitea  
herritarrek bizitzako alderdi guztietan egiten  
dituzten ekintzen mende dago, eta horrek

eskatzen du haien pentsatzeko, bizitzeko eta lan egiteko moduan aldaketak egitea.

Iraunkortasuna lortzeko, gero eta jende gehiagok izan behar du kezka bere ekintzek eragiten dituzten gizarte- eta ingurumen-ondorioen gainean, eta, gainera, modu aktiboan lan egiteko trebatuta eta motibatuta egon behar du. *Gizartea aldatzeko helburu horrekin*, Nazio Batuek 2005-2015eko hamarkada Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Hamarkadatzat izendatzea erabaki dute.

UICNren Hezkuntza eta Komunikazio Batzordearen (HKB) Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Hamarkadari buruzko dokumentua

Laburbilduz, herritar guztien parte-hartzea lortzea da helburua. Zergatik? Iraunkortasuneko hezkuntzaren papera ez delako jakintza hedatzea soilik. Iraunkortasuneko hezkuntzaren xedea da pertsonak eta komunitate osoak iraunkortasuna aintzat hartuta bizitzeko bideak aztertzea. Errealitatea zalantzan jartzera eta erronka berriak (indibidualak zein kolektiboak) bere gain har ditzan bultzatzen du jendea, egungo jarduera iraungaitzak konpontzeko.

Iraunkortasuneko hezkuntzak transformazioa lortu nahi du, gure portaera birdiseinatu eta gauzak beste modu batera egiten ikasteko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin (hori oinarritzeko beharrak asetzea dela ulertuz —behar biologikoak, psikologikoak eta sozialak— eta ez behar materialak soilik.

Helburuetan oinarrituz, hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuak FORMALA, EZ-FORMALA eta INFORMALA izan behar du izaerari eta irismenari dagokionez. Hezi eta ikasi eskolan, institutuan, unibertsitatean, lantokian, komunitatean, aisialdirako guneetan, komunikabideetan, elkarteetan, enpresetan eta abarretan egiten dugu. Ikaskuntza- eta hezkuntza-prozesuak guztioi eragiten digu (gizartea aldatzea baita helburua), eta, horregatik, ezin da hezkuntza-sistemaren eta hezkuntza formalaren eskuetan bakarrik utzi. *Pertsona bakoitzak aldi berean ikasi eta irakasten du, toki guztietan*

*tan* (etxean, ikastetxean, lantokian, kalean...) *eta bizitza osoan*, eta, horregatik, iraunkortasuneko hezkuntzak ikasgelatik harantzago joan behar du.

Iraunkortasuneko hezkuntza errealitatea aldatzeko tresna da. Etengabeko ikaskuntza- esperientzia da, eta jendeak alderdi guztietan eta bizitzako une guztietan parte har dezan egin behar du.

Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria hitz gutxitan.

### Beraz, EAEn nori zuzendu behar zaio iraunkortasuneko hezkuntza?

«Pertsona guztiei» erantzun anbigua da, eta, ondorioz, ez da eraginkorra ekintzarako. Hori dela eta, komunitatea sektore edo talde sozialetan (gutxi gorabehera homogeneousak) sailkatzen saiatu gara konplexutasuna sinplifikatzeko, irizpide metodologiko malgu eta ireki batean oinarrituta. Hauek dira:

- Administrazioa (autonomikoa, forala eta tokikoa).
- Enpresak.
- Hezkuntza-komunitatea edo hezkuntza-sistema formala (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitatea).
- Herritarrak eta komunitatea.
- Komunikabideak.

Horiek guztiek dute erantzukizuna iraunkortasunerako hezkuntza-prozesuan eta ikaskuntzakoan, modu batean edo bestean beren portaeraren bidez eragiten baitute, eta, beraz, hezi eta ikasi egiten dute (modu iraunkorrean edo iraungaitzean).

#### 1. Administrazioa

Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro adierazi du Euskal Autonomia Erkidegorako garapen-eredu iraunkorra hautatzeko konpromiso sendoa. Hala berresten dute Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorrak, EAeko Iraunkortasunarekiko Konpromisoak, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020), EAeko Ingurumeneko Esparru Programak (2002-2006), Gauteng-eko adierazpenak...



Konpromiso horrek politika autonomiko guztietan iraunkortasuna integratzea eskatzen du (sektorea edozein dela ere), laburki eta programa, ekintza eta erabakiak hartzeko prozesuetan oinarrituta. Adibidez, hezkuntza-sistema formalaren curriculum-a garatzean, zerga-sistema diseinatzean, etxebizitzaren politikan, administrazio publikoko langileen prestakuntza-programan, Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren estrategia planifikatzean, etab. Programa politiko eta sektorial espezifikoen iraunkortasunaren printzipioak zehaztea da asmoa, betiere, errealitatea osorik hartuta ahaztu gabe.

Hainbat tresna daude arlo hori lantzeko, eta horien artean Euskal Administrazio Publikoko zerbitzura dauden langileentzako Ingurumeneko Prestakuntza Plana.

Zeregin eta erronka berak aplikatzen zaizkio Autonomia Erkidegoko foru-aldundiei ere, betiere, beren politika, programa eta ekintzek lurralde historikoetako garapenari (iraunkorrari zein iraungaitzari) eragiten badiote.

Era berean, tokiko Administrazioa herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea da, eta, horregatik, funtsezko zeregina du. Gaur egun, udal ugari ari dira sektore-politikak integratzeko programa espezifikoak lantzen, iraunkortasun-irizpideetan oinarrituz eta Agenda 21 ezarriz eta garatuz (Udaltalde; Udalsarea).

Hauek dira iraunkortasuneko hezkuntzan tokiko gobernuan aurrera egiteko dauden aukera nagusiak:

- Tokiko arduradun politikoak prestatzea, haien jakintza eta konpromisoa iraunkortasunari dagokionez garatzeko.
- Komunitatea prestatzea tokiko kudeaketan parte har dezan, tokiko gobernagarritasun-esparru berria sustatzeko.
- Garapen iraunkorraren ekintzak onartzea eta bultzatzea herri mailan.

*See change: learning and education for sustainability.* Zeelanda Berria, 2004

## 2. Enpresak

EAEko Ingurumeneko Esparru Programan (2002-2006) adierazten da industria-sektorea dela ingurumen-integrazioan gehien aurreratu duten sektoreetako bat —beste esparru batzuekin alderatuz—, eta azken urteetan EAEko enpresetan ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzen, borondatezko nahiz bestelako hitzarmenak onartzen, iraunkortasun-planak eta —memoriak egiten... izandako garapena nabarmentzen da.

Jarduera ekonomikoek iraunkortasunerako hezkuntza-prozesuan eta ikaskuntzakoan egiten duten ekarpena —eta esku-hartzea— funtsezkoa eta ezinbestekoa da hezteari eta ikasteari dagokionez.

—Hezteari dagokionez, eta sektore ekonomikoan nagusi den logikan oina hartuta (epe motzeko ikuspegian eta ahalik eta errendimendu gehien lortzeko ekintzan oinarritutako logikan), iraunkortasunari aplikatu ahal izango zaizkion jarduerak arrakastatsuak ekarriko dituzte; esaterako, komunikazioa, marketina, trebakuntza edo ekintzaren ebaluazioa.

—Ikasteari dagokionez, ingurumen- eta gizarte-politika prebentiboak hartzen ikasi eta aurrera egingo dute, baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzeko, ingurumen-inpaktua txikiagotzeko, familia- eta lan-bizitza bateratzeko etab.

Horri dagokionez, 2002-2006 Ingurumeneko Esparru Programan aipatutako konpromisoetako askoren helburua da hezkuntza-aldagaiak enpresetan sartzea, *prestakuntza-planen* bidez, *kudeaketa-tresna iraunkorren* bidez edo *borondatezko akordioen* bidez.

## 3. Hezkuntza-komunitatea

Hezkuntza eta prestakuntza handiagoa izateak ez du nahitaez adierazten jarduera iraunkorragoa. Izan ere, eta adibide gisa, gehien prestatuta dauden gizarte batzuk aztarna ekologiko handiagoa izateagatik nabarmentzen dira eta, beraz, ingurumenaren ikuspegitik, iraungaitzagoak izateagatik.



Hori dela eta, nahitaezkoa da gogoeta egitea eta hezkuntza-sistema berriro bideratzea, jakintza zabaltze hutsa baino gehiago izan dadin eta gure bizimoduari buruz hausnartzea eragin dezan, hala, gure gaitasun eta trebetasunen garapenean oinarrituz, erabakiak hartzeko prestatu eta parte-hartzaile egin gaitzan.

Gaur egun, EAEn ingurumen hezkuntza zeharkako ikuspegitik lantzen da —nahiz eta ikuspegi hori ez den beti lortzen—, bereziki, Haur-Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta maila ertaineko eta goi-mailako Lanbide-Heziketan. Ingurugelen ekintza eta lana —Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak batera kudeatua— norabide horretan zuzendu da sortu zenetik, 90eko hamarkadaren hasieratik.

Hala ere, azpimarratu behar da EAEn irakatsi eta praktikatu den ingurumen hezkuntzak ingurumen-ikuspegi argia izan duela (ura, airea, lurzoria, hondakinak eta poluzioa, natura eta biodibertsitatea, mugikortasuna eta garraioa eta abar jorratzen dira) ikuspegi partziala oinarri hartuta; eta fenomenoaren ikuspegi orokor eta integratua falta izan du.

Horren ordez, oraintsu sortu da Eskolako Agenda 21, Ingurugelek garatzen dutena. EAEko hainbat ikastetxetan gaur egun eta datozen urteetan ezarri beharreko programa da eta hezkuntza-komunitatean iraunkortasuna integratzeko egin den lehen hurbilketa. Hurbilketa hori ikastetxea, familia, udalerrria edo auzoa eta udala barne hartzen dituen testuinguru zabalean egiten dela ulertzen da.

Eskolako Agenda 21 hezkuntza-komunitateak ingurumen-kalitatearen alde eta ikastetxean eta haren ingurunean iraunkortasunaren alde lan egiteko hartutako konpromisoa da. Oinarrizko osagaiak hiru dira: ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumen-iraunkortasuna, curriculum-berriztapena eta komunitateko parte-hartzea.

Iraunkortasunerako hezitzea  
Eskolako Agenda 21

Laburbilduz, EAEko hezkuntza-sistemak funtsezko erronkari aurre egin behar dio (baina ez da ez nahikoa, ez eskusiboa): EAEko herritarrek (gizabanakoak eta komunitateak) bizimodua iraunkortasun-irizpideen arabera egiten ikasteko ikaskuntza-prozesuan parte har dezaten bultzatzekoari.

#### 4. Herritarrak eta komunitatea

Pertsona guztiok erabakiak hartzen ditugu eguneroko bizitzan etxean, lantokian, auzoan eta komunitatean, eta erabaki horiek eragina dute ingurumen-kalitatean, justizia sozialean eta erkidegoaren garapenean. Gure kontsumoak, mugitzeko moduak, aisialdiaz gozatzeko moduak, aukeratzan dugun etxebizitzak, gure garapenak profesional gisa... horrek guztiak besteekiko eta ingurunearekiko errespetuzko eta bidezko bizimodua sortzen du neurri handiagoan edo txikiagoan.

Halaber, gure eguneroko jardueran, banakakoa zein taldekoan, subjektu aktibo edo pasibo izan gaitzake, eta hala jardun dezakegu. Subjektu pasiboa da arazoa kanporatu eta honelako berrespen kategorikoak egiten dituena: «hori ez da nire arazoa» edo «nik ezin dut ezer egin hori aldatzeko». Subjektu aktiboak, berriz, arazoa onartu, autokritika eginez aztertu eta gaitasun proaktiboa eta aldatzeko gaitasuna garatzen du.

Iraunkortasuneko hezkuntzak *aldaketa proaktiboa lortu eta hori nola egiten den jakin* behar du. Ikaskuntza-prozesuak alderdi hauetan eragingo duela ziurtatu behar du: herritarrengan, haien sensibilizazioan eta motibazioan, eta haien gaitasunean eta prestakuntzan, ezinbesteko ekintza-aren aurretiko urrats gisa.

Gainera, herritarren ekintza eraginkorragoa izango da parte-hartzean oinarritutako sareak sortzeko eta finkatzeko prozesua bultzatzen bada. Komunitateko elementuak elkarri lotuta daude, eta sare sozialak sendotuz areagotzen da kontzientziazioa eta iraunkortasunerako ekintzetarako urratsa ematea.

#### 5 Komunikabideak

Zalantzarik gabe, komunikabideek eragin handia dute garapen iraunkorarekin bat datozen pen-





tsatzeko, bizitzeko eta lan egiteko moduan aldatzeko sartzeko eta horien bidez bizitzen ikasten erakusteko. Beraz, inplizituki iraunkortasuneko hezkuntzaren helburu den gizarte-aldaketan eragiten dute. Halaber, gure komunitateko joera, mugimendu eta korrante nagusiak atzematen dituzte komunikabideek, eta haien berri ematen dute.

Duen erronka kontuan, iraunkortasuneko hezkuntzaren helburu nagusia izango da pertsonen pentsatzeko moduan eta portaeran eragiten saiatzea. Horretarako, marketineko, publizitateko eta komunikazioko tekniken potentziala erabiliko da, garapen-eredu iraunkorraren onerako eta biztanleriaren oinarrizko beharrak asetzeko.

*Iraunkortasuna gehiago balioesten duen bizimodu edo bizimodu bidezkoagoa «modan jartzera» eramango gaituen erronka. Biztanleriak garapen iraunkorra —hau da, bizitzarekiko jarrera eta estiloa— zer den uler dezan behar bezala oinarritutako mezu positiboak transmitituko dira, ekintza eta gertaera zehatz eta ulergarrietan oinarrituta. Erronka ondo komunikatzea da, biztanleriarengana iristea alegia, bihotzak, buruak eta eskuak irabazteko eta herritarrak motibatzeako ekintza pertsonalari eta kolektiboari ekin diezaioten.*

lido horretatik, sentsibilizazio, parte-hartze eta komunikazio plana onartzea eta ezartzea oinarrizko tresna izango da azken bi esparru horietan (herritarrak eta komunitatea, eta komunikabideak).

Azken batean, ezarritako erronkan arrakasta izateko...

—EAEEn gero eta garapen iraunkorragorantz aurrera egiteko ez da nahikoa politikak eta ingurumen iraunkorreko programak planifikatzea eta kudeatzea; horretaz gain, esku hartzen duten eragile guztiei bideratutako informazio-ekintzetan eta iraunkortasuneko prestakuntzan eta sentsibilizazioan sakondu behar da.

—Horretarako tresna eta baldintza dugu iraunkortasuneko hezkuntza; eragile bakoitzak iraunkortasunarekin duen erantzukizuna errazteko.

—Horrek guztiak iraunkortasuneko ekintzak eragingo ditu arlo sektorial ezberdinetan —baita gizarte-izaera eta izaera ekonomikoa duten arloetan ere—, eta maila ezberdinetan: indibidualean eta kolektiboan.

—EAEEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz aurrera egiteko argudioak dira.

## 4. KAPITULUA HEZKUNTZA POLITIKEN GAINEAN HAUSNARTZEKO KONPROMISORANTZ

EAEEn, *erakundeek iraunkortasuneko hezkuntza-aren aldeko konpromisorantz aurrera egiteak* esan nahi du EAEk Nazio Batuen Iraunkortasuneko Hezkuntzarako Hamarkadak (2005-2014) ezarritako erronken aurrean jarrera hartu eta erronkei aurre egin behar zaiela.

Horretarako, erantzun egin behar zaio *erreferentzia-markoa eta testuingurua, printzipioak, jarduteko lehentasuneko eremuak eta beharrezko baliabideak ezarri eta bateratu* beharrari, gaur eguneko hezkuntza- eta ikasketa-eredua eta eredu horrek iraunkortasunari egiten dion ekarpena berriro aztertzeke.

Horrenbestez, EAEen garatuko diren programak zehaztu behar dira honakoak lortze aldera:

- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea; iraunkortasunaren alde egiteko herritarrak gaitu eta sustatuko dituzten ezagutza, trebetasunak eta baloreak txertatzea.
- Gaur egungo hezkuntza-sistema —formala, ez formala, informala— garapen iraunkorrerantz bideratzea.
- Herritarrek iraunkortasunarekiko ulermena eta kontzientzia garatzea.

— Azterketa integratu batetik abiatuta (ingurumeneko azterketatik, ekonomikotik eta sozialetik) inplikaturik dauden eragile guztiak gaitzea eta prestatzea; izan ere, denek egin ditzakete tokiko zein iraunkortasun globalaren aldeko ekarpenak

Horrek guztiak bere baitan dakar *gaur egun egiten diren ekintza solte guztiek zentzua izatea, erreferentzia-marko partekatua ezartzea eta ekintza solteak bere osotasunean baloratzea*. Horren adierazgarri dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2003-2006 hirurtekorako ezarri duen hezkuntza-jardueraren lehentasunezko bost ildoetako bat: iraunkortasunaren alde lan egingo duen eredu bat izatea («Zientzia Teknologia eta Garapen Iraunkorra» sailean kokatuta dagoena). Honetan oinarritzen da:

Garapen iraunkorra lortzen lagundu nahi duen hezkuntzak, ingurumen- eta gizarte-arazo hurbilenak lantzeaz gain, ikastetxeetan konfiantzako giroa eta giro osasuntsua eta ekologikoa sustatu behar ditu, baita hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien partehartzea eta inplikazioa ere. Ingurumenaren arazoari aurre egiteko, ingurumenean eragiten duten jardueretan ohitura eta portaera berriak sartu behar ditu Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzak.

EZ DAGO GARAPEN  
IRAUNKORRERAKO  
HEZKUNTZAREN EREDU  
UNIBERTSALIK.  
HERRIALDE BAKOITZAK  
ZEHAZTU BEHAR DITU  
BERE LEHENTASUNAK  
ETA PARTE HARTZEKO  
MODUAK. BEHARREZKO  
DA, ORDUAN, HELBURUAK,  
LEHENTASUNAK  
ETA PROZESUAK  
TOKIAN BERTAN  
ZEHAZTEA TOKIKO  
INGURUMEN BALDINTZAK,  
BALDINTZA SOZIALAK  
ETA EKONOMIKOAK  
ASETZEKO ETA  
KULTURA TESTUINGURUA  
KONTUAN HARTZEKO.

UNESCO. Garapen  
iraunkorrerako hezkuntza.  
Nazio Batuen Hamarkada,  
2005-2014



## Urratsez urrats... EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz

Iraunkortasuneko hezkuntza errealitate egitea erronka konplexua da. Konplexutasuna aipatutako errealitatearen irismenak ezartzen du. Iraunkortasuneko hezkuntzaren eragina oso zabala da; izan ere, gai guztietan (adibidez, biodibertsitatean, hiritartzean, kulturen arteko elkar ulertzean, landako bizimoduaren aldaketan, turismoan, sustapen eta ekitate sozialean, etab.), gure komunitateko ikaskuntza-prozesu guztietan (formalean, ez-formalean eta informalean) eta, beraz, iraunkortasuneko hezkuntza osatzen duten pertsona eta eragile guztietan (administrazioan, enpresetan, hezkuntza-komunitatean, herritarrengan eta komunitatean eta komunikabideetan) eragiten du.

Oraingoz, EAEn erakundeek iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa hartu arte,

konplexutasun hori honela konpontzen saiatzen gara:

- Iraunkortasuneko hezkuntzaren *printzipioak kontuan hartu eta aplikatu egiten dira* hezkuntza-jarduera osoan (arloan informalean, ez-formalean eta formalean), edozein direla ere bai erreferentziako gai-arloak (ekonomia, gizarte-zientziak, inklusio soziala, genero-berdintasuna, ingurumena babestea, euskara, etab.) bai parte hartzen duten eragileak.
- *Arlokako hezkuntza-programa bakoitzak* iraunkortasuneko hezkuntzaren printzipioak *kontuan hartu, integratu eta aplikatzen* dituen heinean, benetako ekarpena egingo zaio EAEko etorkizun iraunkorrangoari. Printzipioak dagozkien arloak hauek dira:

1. Ekintza eta aldaketarako hezkuntza.
2. Hausnarketa kritikoa.

### Iraunkortasuna lortzeko bidean, iraunkortasuneko hezkuntzaren helburu nagusia da...

**Herritarrak trebatzea gizarte- eta ingurumen-aldaketa positiboen alde jarduteko, parte hartzeko ikuspegiari oinarrituz eta ekintza iraunkorrera zuzenduta.**

Hau da, **etorkizun iraunkorrerantz aurrera egiteko tresna da.**

Hezkuntzako **lan-tresna** hauek erabiltzen ditu:

- Informazioa eta komunikazioa.
- Prestakuntza eta trebakuntza.
- Ikerketa eta ebaluazioa.
- Parte-hartzea.

### Horregatik, iraunkortasuneko hezkuntzak hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean eragiten duten **lehentasuneko lau jardueraren** eremu hartzen ditu kontuan

- **Oinarrizko hezkuntza sustatzea eta hobetzea**, biztanleria iraunkortasuna aintzat hartzen duen bizi-modua eramateko gaitu eta bultzatuko duten jakintza, trebetasun, balio eta ikuspegiak integratuz.
- **Lehendik dagoen hezkuntza berriro bideratzea** —maila guztietan—, garapen iraunkorrerantz zuzentzeko.
- Iraunkortasunari buruzko **ulermena eta herritarren kontzientziak** garatzea.
- **Trebatzea/prestatzea**, kontuan hartuz tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko iraunkortasunari sektore guztiek lagun diezaioketela.



3. Ikuspegi integratua.
4. Balioen hezkuntza.
5. Etorkizuneko ikuspegia, etengabeko ikaskuntza eta aurkikuntza.
6. Esperientzietan eta ekintzan oinarritutako ikaskuntza; lehendik dagoen aberastasuna baloratzea; errealitatearekiko lotura.
7. Parte-hartzea.

Aurreko kontuan hartuta eta dokumentu honen bigarren zatian zehazten den bezalaxe, 2006-2010 aldirako EAEren hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana eratu da. Ingurumen hezkuntzak eta hezkuntza sistema formalak EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromiso globalari egiten dioten lehen ekarpen sektoriala da.

Hori definitzeko metodotzat ekintzarako funtsezko kontzeptuak eta tresnak jarri dira praktikan; jarraian horren sintesia jaso da.

EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz aurrera egiteko nahia gauzatuta dugu 2006-2010 aldirako EAEren Hezkuntza Sistema Formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planean; horrela, jarraipena eman zaio EAEn 90. hamarkadatik aurrera ingurumen hezkuntzan egindako bideari.

Planak ingurumeneranzko nolabaiteko joera du eta irismen mugatua —hezkuntza-sistema formalar dagokiona, unibertsitateko esparrua eta unibertsitatekoa ez dena barne direla—; izan ere, abiapuntu errealista izan nahi du. Plana burutu ahala lortutako esperientzia, azken batean, baliagarria izango da etorkizunerako; hain zuzen, arloko beste hezkuntza-plan batzuk egoki zehazteko, EAEko iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoa edukiz eta praktikaz hornituko duten planak.

**Beraz, iraunkortasuneko hezkuntzak hainbat gai eta jarduera-eremu hartzen ditu bere baitan —komunitateko agente guztietan eragina duen neurrian—**

Izan ere, iraunkortasuneko hezkuntzak hainbat diziplinako kontzeptu eta tresna analitikoak integrazten ditu, **jendeak hobeto uler dezan bizi den munda eta iraunkortasunaren erronkari aurre egiteko baliabide gehiago izan dezan.**

**Komunitatea** osatzen duten pertsonak, hainbat modutan. Hona:

- Administrazioa.
- Enpresak.
- Komunitatea edo hezkuntza-sistema.
- Herritarrak eta komunitatea.
- Komunikabideak.

Ondorioz, **etorkizun iraunkor baterantz aurrera egiteko, beharrezkoa da edozein hezkuntza-jardueratan iraunkortasuna integratzea** (iraunkortasunaren printzipioak oinarri hartuta)

Jarduera iraunkor bat lortu nahi duen hezkuntza-ekimenak (diseinuan, gauzatzean nahiz ebaluazioan) iraunkortasuneko hezkuntzaren printzipioak integratu beharko ditu.

Hau da, iraunkortasuneko hezkuntzak «**hezkuntza egiteko forma berriaren**» aldeko apustua egin behar du. Honako alderdi hauek sustatuko ditu forma horrek:

1. Ekintza eta aldaketarako hezkuntza.
2. Hausnarketa kritikoa.
3. Ikuspegi integratua.
4. Balioen hezkuntza.
5. Etorkizuneko ikuspegia, etengabeko ikaskuntza eta aurkikuntza.
6. Esperientzietan eta ekintzan oinarritutako ikaskuntza; lehendik dagoen aberastasuna baloratzea; errealitatearekiko lotura.
7. Parte-hartzea.

**IRAUNKORTASUNeko HEZKUNTZA IKASgai BATZUK BAINO HARANTZAGO DOA, ETA IKASKUNTZAREN IKUSKERA BERRI BAT ETA ESPERIENTZIA BERRI BAT ESKAINTZEN DITU.**

*UNESCO. Garapen iraunkorrerako hezkuntza. Hezkuntzaren ikuspegi transdiziplinarra: ekintzarako baliabidea.*



## II. zatia

2006-2010 aldirako  
EAEn hezkuntza  
sistema formalerako  
Iraunkortasuneko Ingurumen  
Hezkuntzako Plana







Iraunkortasuneko hezkuntzaren konplexutasunak plangintza eta ekintza baldintzatzen ditu. Horregatik mugatu dira jarduera-eremuak, hain zuzen ere: arloak, inplikaturako eragileak, gaiak eta denbora. Hori dugu, beraz, 2006-2010 aldirako EAEn hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Plana (IIHP). Plan hori:

—EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoan *aurrerapausoa* da, eta erreferentzia-esparru gisa Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada (2005-2014) hartu du.

—Era berean, EAEko Garapen Iraunkorrerako Ingurumen-Estrategiako 3. xedean adierazitako konpromisoetako bat betetzen laguntzen du, hots, Biodibertsitateari buruzko Hezkuntzarako Ingurumen Plana egiten. Dokumentuaren irismenarekin zabaldu egiten da jardute-eremu hori. Halaber ekarpenak egiten dizkio beste xede eta helmugei ere.

—Plana bere planteamenduetan eta jatorrian EAEko hezkuntza-sistema formaleko iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza gidatu behar dituzten *jomugetan, helburuetan eta printzipioetan* oinarritzen da, aldezturiko diagnostikoen oinarrituta.

—Plana eraginkorra izan dadin modu honetan egituratzen da: *6 jarduera-ildo* ditu, *33 programa* (horietatik 18 unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistamarako eta 15 unibertsitateko hezkuntza-sistamarako) eta *114 neurri edo ekintzarako konpromiso* jakin (57 unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistamarako eta 57 unibertsitateko sistamarako). Horrez gain, *planak segimenduetan ebaluazio-sistema espezifikoak dauka*.

Beraz, IIHP EAEko hezkuntza-sistema formalaren laneko konpromisoa da, EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz.

EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoan aurrera egiteko batera jokatu behar dute tartean diren eragile guztiek. EAEko hezkuntza-sistema formalak horretan duen erantzukizuna onartu egiten du eta aplikatu beharreko jomugak, helburuak eta printzipioak zehazten eta ezartzen ditu. Honako plana zehaztu eta burutuko da: 2006-2010 aldirako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana (IIHP). Plan honek 6 jarduera-ildo, 33 programa eta 114 neurri edo ekintzetarako konpromiso ditu bere baitan.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA-SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

### Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako plana...

Ingurumen hezkuntza ez da nahikoa garapeneren iraunkortasunerantz aurrera egiteko, baina beharrezkoa da.

Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako plana(k):

- Beste jakintza-, prestakuntza- eta jarduera-arlo batzuekin *koordinatzeko eta erlazionatzeko* zubiak ezartzen ditu.
- Ez du ingurumena hartzen naturara soilik mugatutako zerbait balitz bezala, baizik eta pertsonen beren ingurunearekin duten harremanari buruzko *ikuspegi integratuagoa* ematen du; eta hartara, prozesu ekologikoen, ekonomikoen, sozialen eta kulturalen ezagutza hobea eskaintzen du.
- Balioen, jarreraren eta trebetasunen garapenean oinarrituta, *aldaketa soziala sustatzea* du asmo, norik bere gain ingurumen- eta gizarte-erantzukizunak hartzeko.
- Ez da mugatzen ikasketa-planetan ikasgai jakin batzuk txertatzera; iraunkortasuna *etengabeko prestakuntza-ardatz moduan* hartu behar da, bai curriculumaren garapenean, bai bitzita akademiko osoan zehar.
- Premisa honetan oinarritzen da: ingurumen- eta garapen-arazoak ez dira faktore fisiko eta biologikoen ondorioz bakarrik sortzen; horrez gain, funtsezkoa da *elementu sozialek, ekonomikoek, politikoek, historikoek eta kulturek* duten esku hartzea.
- Ingurumen hezkuntzarekiko ikuspegi integrala du, eta hezkuntzaren ikuspegi modernoetara egokitzen da; horren ondorioz, *ingurumen hezkuntza arazoei aurre hartzeko eta horiek konpontzeko* prozesu gisa ulertzen du.

Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak eskolako ziklo guztietan izan behar du tokia, oinarritzko ziklotik hasita, goi-mailakoraino;

gainera, kulturako gune eta arlo guztietan ere izan behar du lekua. Bizitzan etengabeko ikaskuntza-prozesutzat hartu behar da, eta gizarteko hainbat sektore, maila eta talderi eragiten dien printzipio gisa ikusi behar da.

### ...hezkuntza-sistema formalerako...

2006-2010 aldirako EAEn Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana *hezkuntza-sistema formalerako soilik dago bideratuta*; hala ere, epe luzean inplikaturako eragile guztiengana heldu, eta eraginpeko eremua zabaldu nahi da, EAEn Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko konpromisoan aurrera egiteak dakarren erronkaren ondorioz.

Hezkuntza sistema formalak hezkuntza instituzionalari egiten dio erreferentzia, alegia, hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan gauzatzen denari, eta diploma eta gaitasun-maila aitortuak lortzera bideratua dagoenari. Hezkuntza formala, beraz, araututakoa da: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-hezkuntza.

*Hezkuntza-sistema formalaren egitura* hau da:

- Haur Hezkuntzako lehen zikloa. 0-3 urtera bitarteko hezkuntza, hezteko eta laguntzeko izaera du eta borondatezkoa da.
- Haur Hezkuntza. 3-6 urtera bitarteko hezkuntza, heztekoa eta borondatezkoa da.
- Lehen Hezkuntza. Oinarritzko hezkuntza, derrigorrezkoa, 6-12 urte bitartekoa.
- Bigarren Hezkuntza.
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Oinarritzko hezkuntza, derrigorrezkoa, 12-16 urte bitartekoa. 3. eta 4. mailan bide bereziak daude, eta 15 urtetik aurrera Lanbide Has-tapenerako programak daude.
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa.
    - Batxilergoa. Hiru modalitate dituen derrigorrezkoaren ondoko borondatezko hezkuntza: Artea, Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte-zientziak (Musika eta Dantzako batxilergoaz gain).

- Maila ertaineko Berariazko Lanbide-Heziketa. Derrigorrezkoaren ondoko borondatezko hezkuntza.

—Bigarren hezkuntzaren ondokoak.

- Goi-mailako Berariazko Lanbide-Heziketa.
- Unibertsitateko irakaskuntza.

### ... eta, horrenbestez, hezkuntza-komunitateari zuzendua

Iraunkortasuneko hezkuntzan eta ikaskuntza-prozesuan hezkuntza-komunitateak badu erantzukizuna, erabatekoa eta eskusiboa izan ez arren. EAEko hezkuntza-komunitatea zuzenean edo zeharka hezkuntza-sistema formalarekin zerikusia duten eragileek osatzen dute.

EAEko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planetik eratorritako konpromisoak beren gain hartzeko duten erantzukizunaren arabera, EAEko hezkuntza-komunitatea osatzen dutenak, bai unibertsitateko hezkuntza-sistema formalean bai unibertsitatez kanpokoan, honakook dira:

—Zuzendaritza-taldea, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta irakasle ez diren langileak.

—Hezkuntza-administrazioa: lehenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila; horiez gain, hezkuntza-sisteman eragina duten beste administrazio batzuk.

—Eta zeharka, ingurumen hezkuntzako ekipamenduak: baserri-eskolak, ingurumen-eskolak, ingurumen hezkuntzako museoak, ingurumen-interpretaziorako zentroak eta baliabide-zentroak.

Beraz, *Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana hezkuntza-komunitatean oinarrituko da*. Jardute-eremu hori aukeratu da aplikatzerakoan irabazten atera daitezkeen eraginkortasuna, efizientzia, efektibotasuna, esperientzia eta berrikuntzak, baina kontuan dugu aztertu ez diren beste eremu batzuk ere badirela. Hala ere, EAEn iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoari ekarpen berriak egite aldera estrategia integratua erabili, eta plan hau beste plan batzuekin osatu nahi da.





# 1. KAPITULUA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. ONDORIO NAGUSIAK

Diagnostikoa egitea errealitatea ezagutzea da; ikuspegi bat, erreferentzia-esparru bat eta egungo egoeraren ikuskera bat hartzea. Diagnostikoa ezagutza eta sentsibilizazio-tresna da bere horretan. Beharrezko urratsa da, xedeak eta helburuak finkatu eta ezarri aurretik egin beharrekoa, eta, halaber, xede eta helburu horiek lortzen lagunduko duten konpromiso- eta neurri-proposamenak finkatu aurretik.

EAE ingurumen hezkuntzaren egoera-diagnostiko bat egiteak hogeitun urtean egindako lana aztertzea eta balioestea eskatzen du. Erronka konplexua da, eta horren aurrean *diagnostiko parte-hartzailea* aukeratu da, izaera kualitatibo nabarmena duena, eta hainbat iturri informazio zein iritzi garrantzitsuak jasotzen dituena:

- Ingurugelen, EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemako ingurumen hezkuntzaren zentro koordinatzaileen programazioa eta lan-metodiak.
- EAE Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ingurumen hezkuntza integratzeari buruzko diagnostikoaren txostena.
- EAEko ingurumen hezkuntzako III. Jardunaldiak. Txostena, mintegiak, lan-tailerrak, esperimentuak, etab.

—Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

—Ingurugelako eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Biodibertsitate Zuzendaritzako kideekin baterako lan-tailerrak.

Entzundako ahots guztiak, irakurritako testuak, eta jasotako ideiak zein pertzepzioak kontuan hartu, ebaluatu eta sintetizatu ondoren, EAE ingurumen hezkuntzaren diagnostikoari buruzko *ondorio nagusiak* jaso ahal izan dira. Jarraian, ondorio horiek enuntziatu gisa zerrendatuko ditugu.

Diagnostiko parte-hartzailearen ondorioz sortutako ideia erabakigarri nagusiak zehaztu aurretik, komeni da EAEko ingurumen hezkuntzaren irispenerari buruzko iruzkina egitea: 80ko hamarkadatik hona, EAEko ingurumen hezkuntzaren inguruko lana ikasleei (Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoei) eta ingurumenaren aldetik interesgarriak diren eremuetako bisitariei (parke naturalak, biosfera erreserbak, etab. bisitatzen dituztenei) bideratua da. Hala eta guztiz ere, ondoren ikusiko denez, gai batzuk hezkuntzaren eremutik haratago heldu dira.

IRAUNKORTASUNEKO  
INGURUMEN HEZKUNTZA  
GIZAKIEK BEREN  
INGURUNEAREKIN DUTEN  
ERLAZIOA HOBETZEKO  
TRESNA DA, ETA, BERAZ,  
INGURUMEN ARAZOEN  
PREBENTZIOAN ETA  
KONPONKETAN ERAGIN  
EGIN BEHAR DU. ZENTZU  
HORRETAN, ARGI DAGO  
HEZKUNTZAREN ESKU  
HARTZEAREN DISEINU  
EGOKIA EGITEKO  
LANDU BEHAR DEN  
INGURUMENAREN  
ERREALITATEARI  
BURUZKO AURRETIKO  
EZAGUTZA ZEHATZA  
EDUKI BEHAR DELA.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

### 1.1. EAE-KO INGURUMEN HEZKUNTZAN LORTUTAKOAK

#### 1. Ingurumen hezkuntza instituzionalizatzea. EAEko ingurumen hezkuntzari zuzenduriko giza baliabideetan eta baliabide teknikoetan aurrera eginez

1989. urtean, EHAAn argitaratu zen Ingurugelen sorrera, Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegi gisa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren bidez.

Ordutik, Ingurugela zentroek osatzen dute irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea. Sare hori arduratzen da unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman ingurumen hezkuntzako planak eta programak koordinatzeaz.

IHITZA aldizkariak gain (gaurkotasun handiko gaiak, baliabideen dibulgazioa, hezkuntza-komunitaterako materiala eta abar biltzen ditu), Ingurugelak ikastetxeei eskaintzen dizkien zerbitzuak hauek dira:

- Informazio- eta dokumentazio-zentroak.
- Irakasleen etengabeko trebakuntza.
- Hezkuntza-programetarako materialak egitea.
- Zentroko proiektuetan aholkularitza, saiakuntza eta ikerketa.
- Aztertu programa: Ibaialde eta Azterkosta kanpainak.
- Eskolako Agenda 21 Programa.

Ingurugelak giltzarriak izan dira EAEko ingurumen hezkuntzan: irakasleen trebakuntza profesionalizatua, material kurrikularrak eta laguntzeko materiala sortzea, etab. EAEko ikastetxeetan ingurumen hezkuntza integratzearen sustatzaile eta eragile izan dira, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Gaur egun, bost Ingurugela daude EAEen: Bilbo, Donostia, Gernika, Legazpi eta Gasteiz.

Ingurugelek egindako jarduerak interesgarri edo oso interesgarri gisa balioesten dituzte, batez ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako

irakasleek eta ikasleek. Jarduera hauek azpimarratzen dituzte: irakasleei eskaintako aholkularitza eta trebakuntza, IHITZA aldizkaria eta material didaktikoa argitaratzea, sentsibilizazio-kanpainak, Eskolako Agenda 21 eta dokumentazio-zentroak.

Hala eta guztiz ere, eta aurrera egiteko garrantzitsua da Ingurugelen egitekoaren, helburuen eta hornikuntzen komunikazioan eta hedapenean sakontzea. Bestalde, irakasleen trebakuntza berriro aztertu behar da, hasierakoa nahiz etengabea. Hasierako trebakuntzak irakasleari aurrerantzean irakaskuntza ingurumeneko testuinguru ezberdinetara egokitu ahal izateko ezagutza emango dio; etengabeko trebakuntzan, berriz, birziklatze-jarduerak indartzea komeni da, baita etengabeko trebakuntza-modu berriak probatzea, asmatzea eta balioestea ere.

Ingurugelez gain, azpimarragarria da urte askotan zehar (Ingurugelak sortu aurretik eta ondoren) zenbait irakaslek beren kasa eta bokazioz iraunkortasunaren alde egindako lan konprometitu. Apustu irmoa izan da, jarraipena izan duena eta gaur egun oraindik ere indarrean dagoena; eta EAEko hezkuntza-sisteman ingurumen hezkuntza zabaltzea eta sustraitzea ahalbidetu du.

#### 2. EAEko herritarren, batez ere ikasleen pixkanakako sentsibilizazioa ingurumen-gaietan

EAEen areagotu egin da herritarrek ingurumenaren egoerari buruz duten pertzepzioa. 2004ko datuen arabera, EAEko herritarren % 80k uste du ingurumena babestea eta poluzioaren kontrako borroka lehentasunezkoak eta premiazkoak direla.

Ingurumenari buruz sentsibilizatzeko egin den ahalegina unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema formalari zuzendu zaio, batez ere. Ikasleak izan dira EAEen ingurumen hezkuntzaren inguruan egindako programen xede-publiko nagusia. Gaur egun, hezkuntza sistema formalean egindako ahalegin horrek bultzatu ditu, nolabait, hezkuntza-sistema ez-formala, tokiko administrazioa (Tokiko Agenda 21), enpresak, herritarrak, etab. EAEen ingurumen hezkuntzaren xede



eta erreferente bihurtu da eskola, eta, beraz, eragina du hezkuntza-komunitatean eta komunitatetik kanpo.

2006-2007 ikasturtean, 341 ikastetxe Eskolako Agenda 21 prozesuan daude EAEn.

138 udal Tokiko Agenda 21eko ekintzak ezartzeko prozesuan daude iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean (Udalsarea 21).

### **3. Talde aitzindariak egiteko garrantzitsua dute, eta ingurumen-ekipamenduen sare sendo eta finakua sortu dute EAEn**

Taldeak, enpresak, kooperatibak eta ekipamenduak erabakigarriak izan dira EAEn ingurumen hezkuntza abiarazteko, hasieran, eta garatzeko, ondoren.

Gaur egun, EAEn ingurumen hezkuntzarako ekipamendu nagusiak hauek dira:

—Ingurugela, Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman.

—HABEA, ingurumen hezkuntzarako ekipamenduen elkarte. Bertan hauek daude:

- Baserri-eskolak.
- Ingurumen-zentroa.
- Ingurumen interpretazio-zentroak.
- Museo-eskola.
- Dokumentazio-zentroak.

Gainera, azpimarragarria da beste zenbait talderen ahalegina eta parte-hartzea —talde ekologistak, naturalistak, etab.—.

Beraz, sektore profesional gaitu eta trebatu bat finakatu da, ingurumen hezkuntzako zerbitzu eta baliabideen diseinuari eta ekoizpenari loturik, eta eragina du hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean.

### **4. Ingurumen hezkuntzaren ikuspegi partzialetik ikuspegi integratura bidean**

Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuriak hau dio:

25 urtez aintzatespen ofiziala jaso ondoren, eta hedapen ukazina izan arren, onartu behar dugu ingurumen hezkuntzak oraindik irismen mugatua duela, eta arazoak modu eraginkorrean konpontzeko ekarpen gutxi egiten dituela. Ingurumen hezkuntzaren ikuspegi partziala nagusitu da, arlo naturalistetan oinarritua eta, nagusiki, bi talderi zuzendua: ikasleenari eta natur gune babes-tuetara doazen bisitarienari.

Aurreko hori onartuz eta ontzat emanez, EAEn dagoeneko gertatu da ingurumen hezkuntzaren ikuspegi integratuago baterako aldaketa. Baina joera hori ez da oraindik amaitu; aitzitik, prozesua hasi besterik ez da egin, jarduera posiblistak markatuta; lorpen eta aurrerapen txikiak behar ditu eraldaketa estrategiko eta globalerantz jarraitzeko.

### **5. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak EAeko Garapen Iraunkorreko Estrategiaren helburuak lortzen laguntzen du, eta hala jarraitu behar du**

Dudarik gabe, EAEn ingurumen hezkuntzaren inguruan azken urteetan egindako ahaleginak eragina izan du Garapen Iraunkorreko Estrategia egiteko eta martxan jartzeko beharrez, horretan bakarrik izan ez bada ere. Ingurumen-informazioan eta —komunikazioan, ikasleak trebatzen eta gaitzen, eta baliabideak eta materialak prestatzen egindako lanak lagundu egin du, beste ahalegin batzuekin batera, behar bat sortzen eta EAEn Garapen Iraunkorreko Estrategia bati ekiten.

Etorkizuneko erronka bihurtzen den lorpen bat: iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzatik EAEn Garapen Iraunkorreko Estrategiak zehaztutako helburuak garatzen eta betetzen laguntzea. Bide honetan urrats garrantzitsuak eman dira. Eskolako Agenda 21 Programaren garapena ildo horretatik egin den lorpen garrantzitsuenetarikoa dugu.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

Eskolako Agenda 21 Programak iraunkortasunaren kontzeptu eta printzipioak ikastetxera eta horren inguruko lurraldera egokitzen ditu (Tokiko Agenda 21 Programak udalerrietan edo eskualdeetan egiten duen bezalaxe) eta, ikastetxeetan eta hezkuntza-komunitatean lan egiteko modu berriak bideratzen ditu. Bide berri horiek bere baitan dute: azterketa, hausnarketa, eztabaida, parte-hartzea, inplikazioa, ekintza eta iraunkortasunetik egindako ebaluazioa. Zentroaren antolaketa eta plangintza berri baten katalizazio-modu berriak, diziplinen planteamen-duak gaindituko dituztenak. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza zeharkako ardatz gisa integratuko da horretarako, eta ardatz horren inguruan ibiliko dira hezkuntza-programen arloetako gaiak.

—Eskolako Agenda 21en helburua da iraunkortasunean aurrera egitea; horretarako, ikasleei ingurumeneko gaiak kudeatzen, erabakiak hartzen eta ikastetxearen eta komunitatearen arteko mugak gainditzeko irakatsi nahi zaie. Eskolako Agenda 21eko helburuak modu zehatzagoan daude jasota hemen:

- Ezagutza- eta ikasketa-prozesuak eraikitzen lagundu; bai ikastetxean, bai ingurunean, iraunkortasunerako jarrerak bultzatzen dituzten esperientzien alde egingo da.
- Norbanakoaren zein komunitatearen bizitzakalitatean eragiten duten eremuetan eta arloetan umeen, nerabeen eta gazteen parte-hartzea bultzatuko da, baita ingurumenaren inguruko arazoetan eta auzietan ere.
- Antolamendu-egiturak eta koordinaziorako bideak ezarriko dira erakundeetan eta erakundeen artean, hartara, eskura dauden baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatuko dira eta gero eta bizimodu iraunkorragoa eramatera bideratuko gaituzten hobekuntza-planak bultzatuko dira.
- Jarraipenerako, komunikaziorako eta ebaluaziorako bideak eta tresnak zehaztu, ikastetxean eta ingurunean hobekuntza erraztuko dutenak.

—Helburu horiek lortzeko Eskolako Agenda 21ek ekintza eta lanerako hiru oinarritzko ardatz aur-

keztu eta garatu ditu: ikastetxeko eta ingurune-ko *baliabideen kudeaketa iraunkorra*; ingurumenari eta iraunkortasunari begira *egokitutako curriculum*; komunitatean *parte-hartzea*.

—Metodologiari erreparatuta, Eskolako Agenda 21 eskolako eko-auditorian oinarritzen da; izan ere, parte-hartzea eta komunikazioa (sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko baliabide gisa) prozesu osoan zehar kontuan hartzen diren zeharkako ardatzak dira.

Eskolako Agenda 21 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian, orduz geroztik *gero eta ikastetxe gehiagok* txertatu dute euren programetan. Eskolako Agenda 21 aplikatuzetik esperimentazio-, ebaluazio- eta ikerketa-lanak sortu dira; eta horren ondorioz, metodologia hobetu eta berritu egin da, eta hainbat material didaktiko sortu da, bai espezifikoak, bai laguntzarako materiala. Hona hemen bilakaeraren adierazgarri diren zifra batzuk:

—*2003-2004 ikasturtean* Eskolako Agenda 21 jarri zen abian EAEn; 42 ikastetxek hartu zuten parte (800 bat irakaslek eta 11.000 ikasle baino gehiagok). Aztergai nagusiak ingurumenak dituen lau arazo larriekin zeuden loturik: energiarekin, hondakinekin, baliabide naturalekin eta mugikortasunarekin.

—*2004-2005 ikasturtean* 130 ikastetxek hartu zuten parte (EAeko ikastetxe guztien % 18k); aurreko ikasturtean landutako gaietan oinarritu ziren egindako azterketak eta ikerketak.

—*2005-2006 ikasturtean* 253 ikastetxek hartu zuten parte (27 Araban, 117 Bizkaian eta 109 Gipuzkoan), alegia, EAeko ikastetxe guztien % 35; 83.000 ikaslek hartu zuten parte programa horretan.

—*2006-2007 ikasturtean* 341 ikastetxek parte hartzen dute, alegia EAeko ikastetxe guztien % 50, beraz, 125.789 ikaslek eta 11.193 irakaslek jarduten dute programa horretan.

Eskolako Agenda 21en ebaluazio eta hobekuntzarako estrategiaren barne, gaur egun programa hasi



zenetik betetze maila aztertzen eta ebaluatzen dihardute. Helburua argia da: «Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020» ezartzen dituen helburuak betetzen lagunduko duten *jarduera-ildo berriak* proposatzea.

## 1.2. EAE-KO INGURUMEN HEZKUNTZAKO ERRONKAK

Baina, gainera, EAEko ingurumen hezkuntzak *lan-erronkak* ditu 2005erako.

Egoeraren diagnosian identifikatutako erronkak eta jarraian enuntziatu gisa jaso direnak.

### 1. Ingurumen hezkuntzaren eraginkortasuna aragotzea, ekintza eraldatzaile sozialerako motibazio gisa

Ingurumen-errealitateari buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa areagotu diren arren, ez da gauza bera gertatu ekintzarekin. Ingurumen-arazoetarako konponbideen bila —*a posteriori*— gabiltzan artean, ez da aurrerapen garrantzitsu eta esanguratsurik egiten prebentzio-ekintza hauetan: ohitura- eta portaera-aldaketetan, tokiko gizarte- eta ingurumen-errealitateen eraldaketetan eta abarretan.

EAEko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ingurumen Integrazioko Diagnostikokoan adierazten zen moduan,

Balioen, jarreraren eta arauen pentsamendu (eta ekintza) justua eta autonomia ahalbide-tuko duen garapen morala erraztea.

Horrexegatik, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren erronka nagusienetakoa da iraunkortasuneko hezkuntzaren printzipioen integrazio erreala; izan ere, horrek eragingo du benetako aldaketa.

### 2. Lanaren eta ahaleginen plangintza, ingurumen hezkuntzaren kalitatean sakontzeko baldintza denez

Sortu zenetik, ingurumen hezkuntzan aurrerape-nak, neurri batean, pertsonen eta erakundeen uste sendoetatik eta borondatezko motibaziotik eratorritako ahaleginaren eta lanaren ondorioz

izan dira. Hala ere, loturarik gabeko ekintzak izan dira, askotan, abiapuntu; argi ez dauden helburuak, anbiguoak, balioesten zailak. Ez da egon neurrien plangintza edo programaziorik identifikatutako beharren, lehentasunen edo hartzailetaldean arabera zehaztutako helburuekin.

Ondorioz, egungo egoerak azaltzen du eskakizunen, kalitatearen eta emaitzen eraginkortasunaren maila handitzeko beharra. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren egituraren oinarriak hauek izan behar dute: onartutako helburu argiak, garatu beharreko lan-programa, parte hartzen duten eragile jakinak, helburu den publikoa...

Laburbilduz, estrategia globala behar da iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren bidean eta konpromisoan aurrera egiteko.

EAEko iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren plangintza estrategikoan aurrera goaz.

### 3. EAEko iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak unibertsitateko hezkuntza-sistemara eta lanbide-heziketara zabaldu beharra dauka

EAEko ingurumen hezkuntzaren inguruan egindako ahalegin nagusia ikasleengan oinarritu da, 1990ean Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea (LOGSE) onartu zenetik ikastetxeetan egindako lanen bitartez. Horrek ekarri zuen ingurumen hezkuntza zeharkako gai gisa sartzeara eta horretan eta ingurumen hezkuntzako ekipamenduetan konprometitutako irakasleen jardueraren aintzatespen ofiziala.

Hala, beharrezkoa da irakaskuntzan ingurumen hezkuntza integratzen jarraitzea planteamendu diziplinarrak gaintzeko eta eskolan antolaketa eta plangintza modu berriak jorratzeko.

Gainera, EAEko iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak zabaldu beharra dauka hezkuntza-sistema formalaren osotasunera. Hots, beharrezkoa da Lanbide Heziketako (maila ertainean eta goi-mailan eta Unibertsitate hezkuntzako helburuetan, plangintzan, programazioan eta ekintza hezitzailean sartzeara.





## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA



### **4. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren helburuei aurre egiteko beharrezko baliabideak ematea**

Hezkuntza-komunitateko, hots, zuzendaritza eta irakasleen arteko zenbaitek ez ditu Ingurugela eta haren egitekoa ezagutzen. Horrek ekar dezakeena da:

- Baliabide eta materialetarako irismen potentziala murriztea.
- Zentroaren hezkuntza-plangintzan ingurumen hezkuntza tratamendu urria izatea, eta zeharka sartzea.

Hori horrela, kontuan izanda iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren irismena zabala dela hezkuntza-sistema formalean...

— Bai bere helburuetan: informazio nahikoa eta kalitatezkoa, trebakuntza eta gaikuntza egokia, hezkuntzan parte hartzeko eta hura berritzeko baliabideak eta egindako lana ebaluatzeko teknikak.

— Bai bere edukietan: ingurumena eta ingurua, arlo sozialari eta ekonomikoari eta, beraz, giza portaerari loturiko sistema baten sorrera eta ondorio gisa.

— Bai bere xede-publikoan: hezkuntza-komunitatea.

... beharrezkoa da giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta ekonomikoaren plangintza eta kudeaketa egokiari, planteaturiko helburuekin bat datorrenari, heltzea.

## 2. KAPITULUA PLANAREN XEDE, HELBURU ETA PRINTZIPIO GIDARIAK

### 2006-2010 aldirako plana...

EAE n hezkuntza-sistema formalean iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak dituen erronka nagusiak identifikatuz sortu eta zehaztu zen plan honek 2006-2010 aldia hartzen du.

### ... ondo zehaztutako misio eta helburuekin...

2006-2010 aldiko EAEko hezkuntza-sistemaren Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntza Planak, bere ekintzen esparrutik eta alditik, ekarpenak egin nahi dizkio EAEko iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisoari, helburu hauek lortuta:

- Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza bultzatzea, hezkuntza-sistema formalean, etorkizun iraunkoragarantz aurrera egiteko tresna denez.
- Trebetasunak, gaitasunak, balioak, pentsamendu kritikoa, diziplina anitzeko ikuspegia, jarrerak eta lan egiteko moduak sustatzea hezkuntza-sistema formalean, izan ere, hezkuntza-komunitatea gaitu nahi da, ekintza eraldatzaile iraunkor eta parte-hartzaileak aurrera eramane dituzten.
- Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari aplikaziorako testuinguru koherente eta koordinatu

ematea, hezkuntza-sistema formalean. Xede eta helburu bateratuen bidez zehaztutako esparrua, jarraitzeko aukera ematen dion denborazko helburuak eta ekintzarako konpromisoak.

- Hezkuntza-sistema formalean oinarriak finkatu, aplikazio eta esperimentazioaren bidez, arlo horretako beste eragile guztiak iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzan sartzeko eta bertara egiteko: Administrazioa, enpresak, herritarrak eta komunitatea eta komunikabideak.
- 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburuak lortzen laguntzea.

### ... hasierako helburu zehatz batzuk...

Denborazko Ikuspegi eta helburu jakin batzuen bidez, zehaztutako helburuek hau lortu nahi dute:

- EAEko hezkuntza-sistema formalean iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza sustatu. Hezkuntza horrek ingurumenera murrizteko eta lerratzeko joera arian-arian gaituzten eta ikuspegi globalagoa eta integratzaileagoa izaten lagun-

HEZKUNTZAREN HELBURU  
NAGUSIETAKOIA IZAN  
BEHAR DA MUNDUARI  
BEGIRATZEKO MODUA  
ZABALTZEA.

Arnold H. Glasgow



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA



duko du. Ikuspegi hori bat dator iraunkortasunaren kontzeptuarekin eta egungo gizarte, ekonomia- eta ingurumen-gertaeren konplexutasunarekin.

- Hezkuntza-komunitatea tartean sartzea bere osotasunean (irakasleak, ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak...) eta maila guztietan (Lanbide-Heziketa eta Unibertsitatea barne) parte hartuz, banakako nahiz taldekako konpromisoak hartuz, etorkizun iraunkor eta posible baterantz aurrera egiteko.
- Plana arrakastaz gara dadin, planean parte hartzen duten hezkuntza-sistema formaleko eragile guztien arteko koordinazioa, laguntza eta lankidetzaren etengabe hobetzea.
- Premiazkoak diren baliabideez (finantzarioak, pertsonenak, teknikoak eta materialak, aholkularitza-zerbitzuak, etab.) hornitu eta baliabideok erraz lor daitezkeela bermatzea, zehaztutako konpromisoen eta programen arabera.
- Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza zehazkako ardatz gisa sustatzea, hezkuntza-sistema formaleko planteamendu eta curriculumetan sartzean; horretarako, kontzeptualizatzeko, antolatze eta funtzionatzeko beste modu batzuek baliatu behar izango da, hain zuzen ere, malgutasunean, koordinazioan eta sailkako banaketa saihestean besteak beste oinarritutako moduez.
- Hezkuntza-ahaleginaren eraginkortasuna hobetzea; baita dauden baliabideak nahiz baliabide berriak (hezkuntza-sistema formala osatzen duten eragile guztien artean sortuak) erabiltzearena ere; halaber emaitzen eraginkortasuna (hau da, kontzientziazteari eta bukaerako ekintza iraunkorrari dagokienez) hobetu nahi da.
- Informazio, trebakuntza eta gaikuntza, ikerketa eta berrikuntza aurreratua eta etengabekoak sustatzea, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren arloan, hezkuntza-sistema formale-

tik abiatuz, haren laguntzarekin eta harentzat; era berean, horren aplikazio- eta ekintza-eremua beste esparru batzuetara hedatzea, hala nola, Administrazioa, enpresetara, herritarren-gana eta komunitatera, komunikabideetara, eta abar.

- Sarean lan egitea eta esperientzien trukea bultzatzea, EAEEn etorkizun iraunkor baterantz aurrera egiteko etengabeko hobetze- eta ikaskuntza-helburuak oinarri hartuta.
- Hezkuntza-sistema formaleko zentroen eta ekipamenduen ingurumena kontuan hartua izan dadin sustatzea, kudeaketa-ereduetan iraunkortasun-irizpideak onartzeko eta integratzeko.
- Ebaluazio- eta jarraipen-mekanismoak ezartzea, estrategiaren garapena eta aplikazioa balioesteko plana, batetik, eta adierazitako helburuak lortzeko ematen duten laguntza balioesteko, bestetik.

### ... eta bere garapena zuzendu behar duten printzipio batzuk

Iraunkortasuneko hezkuntzaren ezaugarri diren printzipioak, hain zuzen ere, EAEko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planetik eratorritako edozein neurri edo konpromisoren oinarrian egon behar dutenak.

*Iraunkortasuneko hezkuntza-printzipioek labur haei egiten diete erreferentzia:*

1. Ekintza eta aldaketarako hezkuntza.
2. Hausnarketa kritikoa.
3. Ikuspegi bateratua.
4. Balioen hezkuntza.
5. Etorkizuneko ikuspegia, etengabeko ikaskuntza eta aurkikuntza.
6. Esperientzietan eta ekintzan oinarritutako ikaskuntza.
7. Parte-hartzea.

### 3. KAPITULUA

## IRAUNKORTASUNEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANAREN EKINTZA KONPROMISOAK, HEZKUNTZA SISTEMA FORMALEAN, 2006-2010

Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako planak helburu du, Iraunkortasuneko Hezkuntzaren hausnarketa, printzipioak eta lehentasuna duten iraunkortasuneko ekintza-eremuak plano eragileran —hezkuntza-sistema arautua— eramatea, 2006-2010 aldirako.

2006-2010 aldirako EAren hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntza Plana ekintzako sei lerro estrategikotan egituratzen da:

- 1. lerroa. Sentsibilizatzeko eta erantzukizunak banatzeko informatu eta komunikatu.
- 2. lerroa. Erabakiak hartzeko prestatu eta trebatu.
- 3. lerroa. Parte-hartzea sustatu, erraztu eta dinamizatu.
- 4. lerroa. Ikertu, berritu eta esperimentatu.

- 5. lerroa. Antolatu eta baliabideak jarri.
- 6. lerroa. Koordinatu, lankidetzan aritu eta sarean lan egin.

Lerro horiek planaren sei lan-eremu zabalak adierazten dituzte. Lehenengo laurak iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren tresnei egiten die erreferentzia, Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zurian adierazten den bezala. Azken biak, berriz, lotuta daude, Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntza Plana EAeko hezkuntza-sistema formalean 2006-2010 denboraldian ezartzeko eta garatzeko beharrezkoa den antolamendu- eta lankidetz-egiturarekin.

Horrez gain, lerro bakoitzak unibertitatez kanpoko eta unibertitateko hezkuntza-sisteman eragiten du, ekintza-programen eta —neurri espezifiko bidez. Ondoren, planaren eskema erakusten da, lerroen eta programen arabera.

IDEIA, IRADOKIZUN,  
PROPOSAMEN ETA  
ABARREN DANTZA DUGU.  
LANEAN HASTEKO ORDUA  
DA. ZEIN BERE ETXEAN,  
ESKOLAN, LANTOKIAN,  
AUZOAN, HERRIAN EDO  
HIRIAN...  
PROIEKTUAK SORTU,  
FOROAK OSATU,  
HAUSNARTU, HITZ EGIN  
ETA EZTABAIDATU.  
LEHENDIK DAUDEN  
BALIABIDEAK ERABILI  
ETA BESTE BATZUK SORTU.  
GUNEAK, MEMENTOAK  
ETA AUKERAK ERAGIN.  
EKINTZARAKO  
BALIABIDEAK SUSTATU.  
ESKU HARTU.  
PARTE HARTU.  
EKIN. BESTE BATZUEN  
EKINALDIEI ERANTZUN.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

EKINTZA LERROA	ERREFERENTZIAZKO HEZKUNTZA KOMUNITATEA
<b>1. LERROA</b> Sentsibilizatzeko eta erantzukizunak banatzeko informatu eta komunikatu	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema
<b>2. LERROA</b> Erabakiak hartzeko prestatu eta trebatu	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema
<b>3. LERROA</b> Parte-hartzea sustatu, erraztu eta dinamizatu	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema
<b>4. LERROA</b> Ikertu, berritu eta esperimintatu	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema
<b>5. LERROA</b> Antolatu eta baliabideak jarri	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema
<b>6. LERROA</b> Koordinatu, lankidetzan aritu eta sarean lan egin	Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema ..... Unibertsitateko hezkuntza-sistema

## EKINTZA PROGRAMA

- 1.1. Ingurumen-sentsibilizazioaren inguruko jarduerak planifikatu eta garatu. Iraunkortasuna komunikatzeko edukiak eta jarduerak.
- 1.2. Esperientzien eta edukien komunikazio- eta hedapen-kanalak sortu eta planifikatu.
- 1.3. Iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan erabilgarri dauden baliabideak eskuragarri egon eta horiei buruz informatu.

- 1.1. Unibertsitatea eta gizartea elkarren artean komunikatu.
- 1.2. Unibertsitatean komunikazio-kanalak sortu eta planifikatu.
- 1.3. Ohitura, kudeaketa-jarraibide eta eduki iraunkorrak unibertsitate barnean hedatu.

- 2.1. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa prestatu eta trebatu.
- 2.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza lanbide-heziketan sartu.

- 2.1. Unibertsitatearen beharrak iraunkortasuneko hezkuntzan txertatu.
- 2.2. Iraunkortasun-irizpideak bateratzeko barne-prestakuntzarako konpromisoa hartu.
- 2.3. Unibertsitatearen prestakuntza-eskaintza gizartearen beharren arabera eguneratu.
- 2.4. Ingurumen-prestakuntza baloratu.

- 3.1. Parte hartzera motibatu eta gaitu.
- 3.2. Parte-hartzearen kultura hezkuntza-komunitatean integratu.
- 3.3. Ikastetxeen eta hezkuntza-ekipamenduen eta beren ingurunearen ingurumenaren aldeko kudeaketan aktiboki parte hartu.

- 3.1. Parte-hartzearen kultura unibertsitateko komunitatean ahalbidetu eta integratu.
- 3.2. Unibertsitatearen eta gizartearen ingurumena kontuan hartzean eta balio-aldaketan parte hartu.

- 4.1. Hezkuntza berritu, material didaktikoen bidez.
- 4.2. Ikerketa, berrikuntza eta esperimentazioa sustatu.
- 4.3. Behatu eta sarean lan egin.
- 4.4. Prestakuntza- eta irakaskuntza-ereduak berritu.
- 4.5. Ikerketa eta berrikuntza ebaluazioan.

- 4.1. Iraunkortasunean ikerketa sustatu eta iraunkortasunean hezi.
- 4.2. Ikerketa eta berrikuntza ebaluazioan sartu.
- 4.3. Behatu eta sarean lan egin.

- 5.1. IIHPa garatzeko baliabideak, bideak eta baldintzak.
- 5.2. Hezkuntza-sistemak iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan dituen beharrak.
- 5.3. Hezkuntza-eragileak eta horien funtzioa IIHPa ezartzean.
- 5.4. IIHPa ikastetxe guztietan integratu. Konpromisoak.

- 5.1. IIHPa garatzeko abiapuntuko baldintzak.
- 5.2. Kudeaketan ingurumena kontuan hartzeko antolatuta.

- 6.1. IIHPan inplikaturako eragileen arteko koordinazio-mekanismoak.
- 6.2. Unibertsitatearen eta IIHParen arteko koordinazio-mekanismoak.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

EAEko hezkuntza-sistema formaleko 2006-2010-erako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntza Planaren egituraren edukia zehaztutako denboraldian garatu beharreko *neurri eta/edo konpromiso zehatzen multzoaren* definizio partaidetuan oinarritzen da. Ondorengo orrietan zehatzen da planaren edukia.

Ezartzeari eta, beraz, proposatutako *neurri edo konpromiso bakoitza gauzatzeari* dagokionez, beharrezkotzat jotzen da zenbait alderdi hausnartzea eta zehaztea. Horretarako, plana lehenetsi eta periodikatu ondoren, *konpromiso bakoitzari fitxamota bat erantsi* ahal izango zaio. Fitxa horrek elementu hauek izango ditu (interesgarriak izan daitezkeen beste batzuez gain):

<b>Neurria/konpromisoa:</b>		<b>Lerroa:</b> Egitaraua:
• <b>Deskribapena:</b>		
• Martxan jartzearen eta garapenaren <b>agente erantzulea(k):</b>	• Martxan jartzean eta garapenean <b>parte hartzen du(t)en agentea(k):</b>	
• Gauzatzeko <b>epea:</b>	• Aurreikusitako <b>kostua:</b>	• <b>Lehentasuna:</b>
• Neurri edo konpromisoaren <b>adierazlea(k):</b>		

2006-2010erako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntza Planaren egitura EAEko hezkuntza-sistema formalean hau da:

—*Ekintza-lerroak*, hezkuntza-sistema formalerako iraunkortasunerako ingurumen hezkuntzan.

—Lerro horietatik eratorritako *jarduera-programak*, unibertsitateko edo unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemaren arabera.

—Programa bakoitzari (beren xehetasunen fitxamotekin) dagozkion *neurri edo konpromiso zehatzak*.



---

4. KAPITULUA  
2006-2010 ALDIRAKO  
EAE-REN HEZKUNTZA  
SISTEMA  
FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNEN  
PLANAREN LERROAK,  
PROGRAMAK  
ETA NEURRIAK

---

GURE IKUSKERA, OHITURA,  
IKUSPUNTU ETA  
ABARREKOAK ALDATZEKO  
BEHARREZKOAK DITUGU  
HEZKUNTZA EKINTZAK.

---



#### 4.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA SISTEMA

##### EGITARAUA

### 1. LERROA

Sentsibilizatzeko  
eta erantzukizunak  
banatzeko informatu  
eta komunikatu

1.1. Ingurumen sentsibilizazioaren inguruko jarduerak planifikatu eta garatu. Iraunkortasuna komunikatzeko edukiak eta jarduerak.

1.2. Esperientzien eta edukien komunikazio- eta hedapen-kanalak sortu eta planifikatu.

1.3. Iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan erabilgarri dauden baliabideak eskuragarri egon eta informatu.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 1.1.1. EAEko eta beste eremu batzuetako gaurkotasunari erreferentzia egiten dioten eta etapetara eta hezkuntza-eragileetara egokituta dauden iraunkortasunari buruzko berrien/edukien bankua sortzea eta etengabe eguneratzea.
  - 1.1.2. Ingurumen-alderdiei eta horiek iraunkortasuneko hezkuntzan aplikatzeari buruzko informazio- eta komunikazio-kanpaina —puntuala eta/edo iraunkorra— hezkuntza-komunitateari zuzenduta.
- 
- 1.2.1. EAEko ikastetxeen arteko gune/kanal birtuala sortzea hezkuntza-komunitatearentzako informazioa hedatzeko [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) atarian.
  - 1.2.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako edukiak dituen web kanala hornitzea eta etengabe eguneratzea.
  - 1.2.3. 1.2.1 proiektuan proposatutako gunerako estekak sartzea EAEko beste web orri batzuetan.
  - 1.2.4. EAEn ingurumen-komunikazioko kanalak sortzea / indartzea: Hezkuntza komunitateari zuzendutako iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako aldizkaria eta IHITZA aldizkaria.
  - 1.2.5. EAEko «hezkuntza-sistemako ingurumen-komunikazioko jardueren baliabideen/esperientzien bankua».
- 
- 1.3.1. Ingurugelak EAEko iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako erreferentzia-zentro gisa egokitztea, eta hezkuntza-komunitateari irekita egotea.
  - 1.3.2. Ingurugelen eta ingurumen hezkuntzako ekipamenduen informazio- eta dibulgazio-kanpaina, hezkuntza-komunitateari zuzenduta.
  - 1.3.3. Ingurugeletako baliabide bibliografikoak, materialak eta kontsulta-sistemak eta ingurumen hezkuntzarako ekipamenduak IIHParen beharretara egokitzea.
  - 1.3.4. EAEko ingurumen baliabideen katalogoa egitea (zerbitzuak, ekipamenduak eta ekintzak barne hartuz)
  - 1.3.5. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako behategia (birtuala eta/edo fisikoa) EAEn aplika daitezkeen iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako baliabideak, ekimenak eta jardunbide egoiak biltzeko, antolatzeko eta banatzeko.



## EGITARAUA

### 2. LERROA

Erabakiak hartzeko  
prestatu eta trebatu

2.1. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa prestatu eta trebatu.

2.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza Lanbide-Heziketan sartu.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 2.1.1. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza berrikustea eta integratzea ikastetxeko hezkuntza-proiektuan, barne-erregimenaren arautegian, ikastetxeko curriculum-proiektuan, etab.
  - 2.1.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako prestakuntza-plan espezifikoa (irakasle, zuzendaritza-talde, guraso, irakasle ez diren langile eta abarrentzat), komunikazio-tresna aplikatuak dituen.
  - 2.1.3. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari buruzko esperientziak, ezagutza eta informazioa trukatzeko jardunaldiak, topaketak, tailer praktikoak, mintegiak, etab.
  - 2.1.4. Iraunkortasun-alderdiak sartzeari lehendik dauden etengabeko prestakuntza-programetan (gurasoen eskola, etab.).
  - 2.1.5. Gurasoentzako tailer eta/edo lan-jardunaldiak eta esperientziak trukatzeari iraunkortasuneko hezkuntzan.
  - 2.1.6. Irakasleentzako eta irakasleak ez diren langileentzako lanpostuetan ingurumen-jardunbide egoiak aplikatzeko tailer eta ikastaro espezifikokoak.
  - 2.1.7. Lanbide-Hastapenerako programen egungo eskaintza berrikustea eta eguneratzea, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzarekin lotutako aukera berriak sartzeari egokia den zehazteko.
- 
- 2.2.1. Heziketa-zikloen egungo eskaintza berrikustea eta eguneratzea, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzarekin lotutako aukera berriak sartzeko.
  - 2.2.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako edukiak gehitzea eta/edo sendotzea prestakuntza teknikoaren eta Lanbide-Heziketaren curriculumetan.



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

### EGITARAUA

#### 3. LERROA

Parte-hartzea  
sustatu, erraztu  
eta dinamizatu

3.1. Parte hartzera motibatu eta gaitu.

3.2. Parte-hartzearen kultura hezkuntza-komunitatean integratzea.

3.3. Ikastetxeen eta hezkuntza-ekipamenduen eta beren ingurunearen  
ingurumenaren aldeko kudeaketan aktiboki parte hartu.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 3.1.1. Parte hartzeko metodologia eta dinamikei eta horiek ikastetxeetan eta iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzan aplikatzeari buruzko mintegi/ikastaro praktikoak zuzendaritza-talde eta irakasleentzat, sustapen- eta onarpen-sistema profesionalarekin.

---

- 3.2.1. Iradokizunak egiteko guneak sortzea (ikastetxeetan, web-atarietan, etab.).
- 3.2.2. Hezkuntza-komunitateak bere inguruko ingurumen-errealitatean parte hartzeko jarduera berri-emai-leak eta borondatezkoak antolatzea.
- 3.2.3. Zentroetan ingurumen-batzordeak sortzen laguntzeko programa, ikasleen eta irakasleen parte-har-tzearekin (gutxienez), eta gurasoei eta irakasleak ez diren langileei irekiak.

---

- 3.3.1. Eskolako Agenda 21 EAEko ikastetxeetan zabaltzea, indartzea eta sendotzea.
- 3.3.2. Aztertu programa EAEko ikastetxeetan zabaltzea, aplikatzea eta sendotzea.
- 3.3.2. Ingurumenari eta iraunkortasunarekin bat datozen balioei buruzko konpromisoak hartzea eta si-natzea hezkuntza komunitateak (gurasoak, irakasle ez diren langileak, etab.).



## EGITARAUA

### 4. LERROA

Ikertu, berritu  
eta esperimentatu

4.1. Hezkuntza berritu material didaktikoen bidez.

4.2. Ikerketa, berrikuntza eta esperimentazioa sustatu.

4.3. Behatu eta sarean lan egin.

4.4. Prestakuntza- eta irakaskuntza-ereduak berritu.

4.5. Ikerketa eta berrikuntza ebaluazioan.



## NEURRIA/KONPROMISOA

- 4.1.1. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren tratamendua eta hezkuntza-etapa eta -zirkloetako pentsamendu kritikoa kontuan hartzen duten curriculum-materialak egitea eta banatzea irakasle eta ikasleentzat.
  - 4.1.2. Hezkuntza-komunitateko eragileetara egokitutako multimedia-materialak egitea eta zabaltzea.
  - 4.1.3. Familiarentzako bizi-balio eta -ohitura iraunkorrei buruzko material didaktikoa biltzea, eguneratzea eta/edo egitea.
  - 4.1.4. Ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuak biltzea, eguneratzea eta/edo egitea zuzendaritza-talde eta irakasle ez diren langileentzat.
- 
- 4.2.1. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman lortu behar diren oinarrizko hezkuntza-xedeei buruzko kontsulta egitea (iraunkortasunarekin loturik) hezkuntza-komunitateari.
  - 4.2.2. Unibertsitatez kanpoko ikerketari laguntzeko lerro espezifikoa garatzea iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren arloan.
- 
- 4.3.1. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako hezkuntza-berrikuntza eta/edo -ikerketako proiektuak identifikatzea eta horien berri ematea eskualdean, estatuan eta/edo nazioartean.
  - 4.3.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako estatuko eta/edo nazioarteko lan-sareetan parte hartzea eta proiektu berriztatzaileak martxan jartzea.
- 
- 4.4.1. Diziplina anitzeko ikerketarako talde espezifikoa sortzea prestakuntza-lerro berriak garatzeko.
  - 4.4.2. Zuzendaritza-talde eta irakasleentzat prestakuntza- eta trebakuntza-metodologia berriak diseinatzea iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan (didaktika, pedagogia, komunikazioa, parte-hartze aktiboa, etab.).
- 
- 4.5.1. Iraunkortasuneko hezkuntzako jarduera eta proiektuetarako ebaluazio-sistema egokiak martxan jartzea unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman.
  - 4.5.2. Iraunkortasuneko balioen ezagutza-maila eta horiek barneratzea ebaluatzeko metodologia berriak diseinatzea, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman.



## EGITARAUA

### 5. LERROA

Antolatu  
eta baliabideak jarri

5.1. IIHPa garatzeko baliabideak, bideak eta kondizioak.

5.2. Hezkuntza sistemak iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren arloan dituen beharrak.

5.3. Hezkuntza-eragileak eta horien funtzioa IIHPa ezartzean.

5.4. IIHPa ikastetxe guztietan integratu. Konpromisoak.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 5.1.1. Giza baliabideak (irakasleen ordutegia eta lan-karga) IIHPTik eratorritako beharretara egokitzea; iraunkortasuneko hezkuntzaren koordinatzailearen/dinamizatzailearen irudia sortzea ikastetxe guztietan eta Berritzegunean, betiere jada martxan diren ekimenekin koordinatuta (esaterako, Eskola Agenda 21).
  - 5.1.2. Irakaskuntza-jarduerako sarrera-probetan baldintza moduan txertatu, iraunkortasunaren hedaturari buruz jakin beharra.
  - 5.1.3. Eskola-materialaren tresna juridiko erregulatzailea eta homologatzailea berrikustea eta/edo egokitzea, iraunkortasun-aldagaia kontuan hartzeko.
  - 5.1.4. Iraunkortasuneko hezkuntzaren finantziazio-lerroak IIHPra egokitzea.
  - 5.1.5. Administrazioak finantzatutako hezkuntza-proiektuen jarraipen- eta kontrol-lerroak ezartzea.
  - 5.1.6. Ikastetxeak eta hezkuntza-ekipamenduak eraiki eta erreformatzea eta horien funtzionamendua arautzen dituen, eta zerbitzuak eta instalazioak ere arautzen dituen araudian, iraunkortasun-irizpideak sartzea.
- 
- 5.2.1. Ikastetxeek, prestakuntza teknikoko eta lanbide-heziketako zentroek eta etengabeko prestakuntzakoek iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan dituzten behar errealak zehazteko eta detektatzeko azterketak egitea.
  - 5.2.2. Iraunkortasuneko hezkuntzako jardueren eta baliabideen eskaintzaren plangintza parte-hartzailea, detektatutako behar errealen arabera.
- 
- 5.3.1. Ingurugeletako urteko ekintza-plana eta hezkuntza-administrazioiko beste eragile batzuk (Berritzegunea, ikuskaritza, hezkuntza- eta ingurumen-ekipamenduak...) IIHParen garapenera eta edukira egokitzea.
- 
- 5.4.1. Ikastetxeek konpromisoak berrestea/sinatzea IIHPa garatzeko (Eskolako Agenda 21, etab.).



## EGITARAUA

### 6. LERROA

Koordinatu,  
lankidetzan aritu  
eta sarean lan egin

6.1. IIHPan inplikaturako eragileen arteko koordinazio-mekanismoak.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 6.1.1. IIHPa garatzeko lankidetzaz- eta koordinazio-bidez iraunkorrak ezartzea Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean.
- 6.1.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako mintegi/mahai iraunkorra sortzeko parte hartzea, IIHPa garatzeko esku hartzen duten erakunde eta eragile guztiak ordezkaturik egon daitezela.
- 6.1.3. IIHPa ezartzeko eta haren jarraipena egiteko eragile arduradunak aztertzea eta izendatzea.
- 6.1.4. Hezkuntza-sistemako eragileen eta beste eragile batzuen artean (fundazioak, enpresak, hezkuntza-ekipamenduak...) lankidetzaz-hitzarmenak sinatzea, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako proiektuak martxan jartzeko eta garatzeko zentroetan eta haren ingurunean.
- 6.1.5. [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) gunean, IIHPa garatzen esku hartzen duten eragileen arteko erlazio-gunea sortzea, lanerako, eztabaidarako eta parte hartzeko foro birtual gisa. Heziketako orrietan estekak prestatzea.
- 6.1.6. IIHPan, lan egiteko konpromisoa duten EAEko ikastetxeen sare koordinatua sortzea.
- 6.1.7. Hezkuntza-sisteman iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza garatzeko eta ezartzeko lanean ari diren estatuko eta/edo nazioarteko beste gune eta/edo sare batzuk gehitzea.



## 4.2. UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA SISTEMA

### EGITARAUA

#### 1. LERROA

Sentsibilizatzeko  
eta erantzukizunak  
banatzeko informatu  
eta komunikatu

1.1. Unibertsitatea eta gizartea, elkarren artean komunikatu.

1.2. Unibertsitatean komunikazio-kanalak sortu eta planifikatu.

1.3. Ohitura, kudeaketa-jarraibide eta eduki iraunkorrak unibertsitate barnean hedatu.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 1.1.1. Gizarteak iraunkortasunaren gainean dituen eskaerak aldizka (eta bi norabidetan) unibertsitatera bidaliko dituen programa martxan jartzea.
  - 1.1.2. Iraunkortasunaren arloan unibertsitateak egiten dituen ekintza eta ikerketen emaitzak gizartera hedatzeko programa koordinatua (norberaren eta kanpoko baliabideen bidez).
  - 1.1.3. Iraunkortasuneko hezitzaileen eta prestatzaileen artean unibertsitateko ikerketen emaitzak hedatzea.
- 
- 1.2.1. EAEen gune/kanal birtuala sortzea, unibertsitateko komunitateari informazioa zabaltzeko (baita campusen artean ere), [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) atarian, detektatutako prestakuntza-beharren arabera.
  - 1.2.2. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako edukiak dituen web-kanala hornitzea eta etengabe eguneratzea.
  - 1.2.3. 1.2.1 proiektuan proposatutako gunerako estekak sartzeari buruz, unibertsitate-eremuarekin lotutako EAEko beste web-orri batzuetan.
  - 1.2.4. Ingurumen-komunikazioko kanalak sortzea/sendotzea: unibertsitateko komunitateko eragileek egindako aldizkari/argitalpen orokorrak edo espezifikokoak, iraunkortasun-edukiak lehendik dauden kanaletan sartzeari buruz, informazio-puntu iraunkorrak gaitzea...
  - 1.2.5. Ingurumenari eta iraunkortasuneko hezkuntzari buruz unibertsitatean sortutako baliabide, dokumentazio eta informazioaren inbentarioa egitea eta zabaltzea.
- 
- 1.3.1. Unibertsitateko komunitateak hartu eta aplikatu behar dituen ingurumen- eta kudeaketa-jardunbide egokiei buruzko etengabeko informazio- eta komunikazio-plan globala.
  - 1.3.2. Ekintzen emaitzak, ikerketa-proiektuak, ezagutza berriak eta abar hedatzea, unibertsitate barruan.



## EGITARAUA

### 2. LERROA

Erabakiak hartzeko  
prestatu eta trebatu

2.1. Unibertsitatearen beharrak iraunkortasuneko hezkuntzan txertatu.

2.2. Iraunkortasun-irizpideak bateratzeko barne-prestakuntzarako konpromisoa hartu.

2.3. Unibertsitatearen prestakuntza-eskaintza gizartearen beharren arabera eguneratu.

2.4. Ingurumen-prestakuntza baloratu.



## NEURRIA/KONPROMISOA

- 2.1.1. Eragileek iraunkortasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrak identifikatzeko azterketa egitea: gobernu-organoak eta zuzendaritza-taldeak, ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak... (Unibertsitateko ekobarometroa).
  - 2.1.2. Unibertsitateko azterketetan iraunkortasunaren arloko prestakuntza-beharrak identifikatzea.
  - 2.1.3. Adituen diziplina anitzeko taldea/batzordea sortzea, curriculumean ingurumena kontuan hartze-ko eta prestakuntzan iraunkortasun-irizpideak sartzeko.
  - 2.1.4. Azterketa-planetan ingurumena kontuan hartzea eta pixkanaka iraunkortasun-edukiak sartzea.
- 
- 2.2.1. Unibertsitateko komunitatearentzako ingurumen-prestakuntzarako plan espezifikoak (zuzendaritza-taldeak eta kudeaketa-organoak, irakasleak, kontratatutako Administrazio eta zerbitzuetako langileak, enpresak, ikasleak...), onarpen- edo sustapen-mekanismoekin hornituta.
  - 2.2.2. Kudeaketa-organoak, zuzendaritza-taldeak eta irakasleak eta ikertzaileak zeharkakotasunean eta horizontaltasunean trebatzea, iraunkortasun-alderdiak bateratzeko beharrezko ikuspegi gisa.
  - 2.2.3. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari aplikatutako komunikazio-tresnetan prestakuntza-plan espezifikoak zuzendaritza-talde eta irakasleei zuzendua.
  - 2.2.4. Ikuspuntu kritikoa eta ikuspegi osoa duten ingurumenari buruzko jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak, tailerrak eta abar, kreditu gisa onartzea akademikoki.
  - 2.2.5. Mintegi, sinposio, lan-talde, jardunaldi eta abarretan iraunkortasun-irizpideak eta -edukiak zeharka sartzea.
  - 2.2.6. Irakasleen eta ikertzaileen etengabeko prestakuntza-planetan iraunkortasun-irizpideak eta -edukiak sartzea.
- 
- 2.3.1. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren arloan gizarteak dituen prestakuntza-beharrak dektatzeko azterketa-taldea sortzea.
  - 2.3.2. Titulazio berriak, gradu-ondoko eta doktoretza-ikastaroak eta/edo ingurumen-espezializazioko eta iraunkortasuneko hezkuntzarekin lotutako ikastaro berriak sortzeko proposamen koordinatua (eta horretarako ikasketa-baliabideak egokitzea).
  - 2.3.3. Iraunkortasunarekin edo hezkuntza- eta komunikazio-zientziekin zerikusia duten unibertsitateko ikasketa guztietan iraunkortasuneko hezkuntza sartzeko derrigorrezko edo aukerako irakasgai gisa (etengabeko hezkuntza barne).
  - 2.3.4. Etengabeko prestakuntzan eta ingurumen-prestakuntzan lankidetzeta eta parte-hartze aktiboa beste eragile eta/edo ekintza-esparru batzuekin, hitzarmen instituzionalen esparruan.
- 
- 2.4.1. Ingurumen- eta iraunkortasun-prestakuntza baloratzeko mekanismoak ezartzea, unibertsitateko langileak kontratatuzko.



## EGITARAUA

### 3. LERROA

Parte-hartzea  
sustatu, erraztu  
eta dinamizatu

3.1. Parte-hartzearen kultura unibertsitateko komunitatean ahalbidetzea eta integratu.

3.2. Unibertsitatearen eta gizartearen ingurumena kontuan hartzean eta balio-aldaketan parte hartzea.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 3.1.1. Parte hartzeko metodologiei eta dinamikei buruzko mintegi/ikastaro praktikoak, eta metodologia eta dinamikok unibertsitatearen kudeaketan aplikatzea, iraunkortasun-irizpideekin bat, pizgarrien eta lanbide-gaitasuna aitortzeko sistema baten bidez.
  - 3.1.2. Iradokizunak egiteko guneak sortzea (unibertsitate-campusetan, gune birtualetan, etab.).
  - 3.1.3. Unibertsitateko komunitateak bere inguruko ingurumenaren errealitatean parte hartzeko jarduera berri-emaileak eta borondatezkoak antolatzea.
  - 3.1.4. Ingurumen-/iraunkortasuneko izaera duten eskolaz kanpoko taldeak sortzea, tokiko ikastetxeekin eta hezkuntza-ekipamenduekin erlazio argia dutenak.
- 
- 3.2.1. Unibertsitateko Agenda 21 edo ingurumen-kudeaketarako beste sistema integral eta partaide-tutako batzuk egitea.
  - 3.2.2. Ingurumen-arloko unibertsitateko borondatezko lana sustatzea komunitateko proiektuetan, gizartearen ingurumen-alfabetatzean eta abarretan parte hartzeko, horien onarpena aukera libreko kreditu gisa gehituz.
  - 3.2.3. Unibertsitateko komunitateak ingurumenaren eta iraunkortasunarekin bat datozen balioen gaineko konpromisoak hartzea eta sinatzea.
  - 3.2.4. Iraunkortasunari buruzko hausnarketa-, eztabaida-, eta iritzi-elementuak sortu eta gizartean zabalduko dituen unibertsitateko plataforma sortzea.
  - 3.2.5. Iraunkortasunari buruz sortzen diren erronka berrien gainean eztabaidatzeko eta hausnartzeko foro sozial iraunkorra sustatzea eta sortzea.



## EGITARAU

### 4. LERROA

Ikertu, berri  
eta esperimentatu

4.1. Iraunkortasunean ikerketa sustatu eta iraunkortasunean hezi.

4.2. Ikerketa eta berrikuntza ebaluazioan.

4.3. Behatu eta sarean lan egin.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 4.1.1. Sailen arteko batzordea sortzea eta instituzionalizatzea (unibertsitate barruan zein unibertsitateen artean) ikerketa-lerroak ezartzeko ingurumenaren eta iraunkortasuneko hezkuntzaren arloan.
  - 4.1.2. Iraunkortasuneko hezkuntza, dibulgazio eta komunikaziorako ikerketa-taldeak eta -lerroak sortzea (unibertsitate barruan zein unibertsitateen artean) alderdi hauek kontuan hartuta: alderdi metodologikoak eta pedagogikoak, balioak eta jarrerak, baliabideak eta materialak, etab.
  - 4.1.3. Unibertsitate bereko eta hainbat unibertsitatetako diziplina anitzeko ikerketa-taldeak sortzea eta/edo indartzea ingurumen-gaietan.
- 
- 4.2.1. Iraunkortasuneko hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko sistemak diseinatzea.
  - 4.2.2. Ebaluazio-sistema egokiak martxan jartzea, IIHPTik eratorritako lerro, ekintza eta proiektuetarako hezkuntza-komunitatean.
  - 4.2.3. Gizartearen iraunkortasun-balioen ezagutza-maila eta horiek barneratzea ebaluatzeko metodologia berriak diseinatzea.
- 
- 4.3.1. Iraunkortasuneko hezkuntza-berrikuntza eta/edo —ikerketako proiektuak identifikatzea (unibertsitate-mailan) eta horien berri ematea eskualdean, estatuan eta/edo nazioartean.
  - 4.3.2. Iraunkortasuneko hezkuntzako estatuko eta/edo nazioarteko lan-sareetan parte hartzea eta proiektu berriztatzaileak martxan jartzea.



## EGITARAU

### 5. LERROA

Antolatu  
eta baliabideak jarri

5.1. IIHPa garatzeko abiapuntuko baldintzak.

5.2. Kudeaketan ingurumena kontuan hartzeko antolatu.

## NEURRIA/KONPROMISOA

- 5.1.1. IHParen esparruan unibertsitatean sustatu behar diren ekintza guztiak koordinatzeko organoa aztertzea eta izendatzea.
  - 5.1.2. Unibertsitateko kudeaketa-organoek ingurumen-konpromisoak eta iraunkortasuneko hezkuntza-ren aldeko konpromisoak hartzea.
  - 5.1.3. Hartutako konpromisoen betetze-maila ebaluatzeko, kontrolatzeko eta aldizkako segimenduak egiteko txostenak.
  - 5.1.4. Finantziazio- eta aurrekontu-lerroak IHPko beharretara egokitzea.
- 
- 5.2.1. Kudeaketako hobekuntza-elementuak zehaztuko dituen batzorde ekoauditorea sortzea, Unibertsitateko iraunkortasun-printzipioekin bat datorrena.
  - 5.2.2. Unibertsitateko zentro eta campusak eraiki eta erreformatzea eta horien funtzionamendua arautzen dituen araudian iraunkortasun-irizpideak sartzea.



## EGITARAUA

### 6. LERROA

Koordinatu,  
lankidetzan aritu  
eta sarean lan egin

6.1. Unibertsitatearen eta IIHParen arteko koordinazio-mekanismoak.



## NEURRIA/KONPROMISOA

- 6.1.1. IIHPa garatzeko lankidetzaz- eta koordinazio-bide iraunkorrak ezartzea Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean (beste sail posible batzuekin batera).
- 6.1.2. Unibertsitate-sistemako iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako mintegi/mahai iraunkorra sortzeko parte hartzea, IIHPa garatzeko esku hartzen duten erakunde eta eragile guztiak ordezkatuta egon daitezten.
- 6.1.3. IIHParen esparruan unibertsitatean sustatu behar diren ekintza guztiak koordinatzeko organoa aztertzea eta izendatzea.
- 6.1.4. Unibertsitatearen eta beste ekintza-esparru batzuen artean lankidetzaz-hitzarmenak sinatzea (administrazioa, enpresak, komunikabideak, fundazioak, zentro teknologikoak, elkarteak, GKEak, etab.), ingurumen-prestakuntza eta —trebakuntzako proiektuak martxan jartzeko eta garatzeko.
- 6.1.5. Unibertsitatearen eta komunikabideen arteko lankidetzaz-hitzarmenak egitea, ingurumen-erlazioak transmititzeko.
- 6.1.6. Unibertsitatearen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzaz-hitzarmenak (administrazioa, enpresak, komunikabideak, fundazioak, ikerketa-zentroak, elkarteak eta GKEak, etab.) egitea, ingurumen-izaera duten diziplina anitzeko ikerketa-proiektuak garatzeko.
- 6.1.7. Unibertsitatearen arteko lankidetzaz-hitzarmenak egitea, IIHPtik eratorritako ingurumen-konpromisoak eta iraunkortasuneko hezkuntzako konpromisoak garatzeko.
- 6.1.8. IIHPa garatzean esku hartzen duten unibertsitateko komunitateko eragileen arteko erlazio-gune birtuala sortzea, lanerako, eztabaidarako eta parte hartzeko foro gisa.
- 6.1.9. Unibertsitate-sisteman iraunkortasun-irizpideak eta iraunkortasuneko hezkuntzako irizpideak garatzeko eta ezartzeko lanean ari diren estatuko eta/edo nazioarteko beste gune eta/edo sare batzuk gehitzea.



## 5. KAPITULUA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Zeinahi plangintza-prozesuk, baita 2006-2010 aldirako EAEko hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planak ere, *jarraipen eta ebaluazio elementuak* barne hartzen du; izan ere, elementuok *zehazten lagunduko die planok zenbateraino diren eraginkor* euren helburuak lortzeko.

### 1. Zein onura dakar ebaluazioak? Zertarako ebaluatu?

Bistakoa dirudien arren, jarraipen- eta ebaluazio-lanek onura esanguratsuak dakartzate; izan ere, lagungarriak dira hauetarako:

- Aurrez zehaztutako helburuak zenbateraino lortu diren jakiteko.
- Gauzatutako programen eta/edo konpromisoen kalitatea neurtzeko.
- Ikasitakoa ebaluatzeko (hezkuntza-ahaleginaren egiazko eragina).
- Proposatutako programak eta/edo neurriak nola hobe daitezkeen pentsatzeko.
- Gai interesgarriak identifikatzeko.

—Indarrak eta mugak argitzeko, eta aurre egin beharreko premiak identifikatzeko.

—Etokizuneko jarduera eta estrategia bideratzeko.

### 2. Zein ezaugarri hartu behar dira kontuan hezkuntzako lerroak, programak eta/edo neurriak ebaluatzean?

Ekar ditzaketen onuretatik harantzago, jarraipen- eta ebaluazio-lanek hasierako hainbat irizpide bete behar dituzte, besteak beste:

- Ebaluatzeak eskatzen du aldizka egindako bideari buruz hausnartzea; egindakoari eta egiteko modu berriei buruz eztabaidatzea eta ikastea; etorkizuneko proposamen eta ekintzei buruz eztabaidatzea.
- Ebaluatzeak iritzia ematea dakar; ahaleginaren eta hezkuntza-jardueraren balioa aztertzea, ikertzea eta zehaztea, hasierako helburuen arabera, ikuspegi objektiboa oinarri.
- Ebaluazioa planifikatuta, eztabaidatuta eta modu zehatzean egin behar da. Beharrezkoa da kontuan hartzea ikuspegi sistemiko bat, ebaluazioa hezkuntza-prozesu osoan integrazten lagunduko duena.

ZER DA EBALUATZEA?

ZERBAITEN BALIOA

KONTUAN HARTZEA.

ETA

IRAUNKORTASUNERANZKO

INGURUMEN HEZKUNTZA

EBALUATZEA?

EPAITZEA

IRAUNKORTASUNERANZKO

INGURUMEN HEZKUNTZA

ZENBATERAINO DEN

ERAGINKOR,

INGURUMENAREN

ETA/EDO INGURUMENA

ZAINTZEN DUTEN

JARDUEREN

MESEDERAKO.

*Towards a set of principles for effective environmental education strategies and programmes-en laburpena eta moldaketa, Michelle Rush et.al, 1999.*



## II. ZATIA

2006-2010 ALDIRAKO EAE-REN HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO  
IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANA

—Ebaluazioak *benchmarking*a izan behar du helburu; hau da, ikerketa- eta ebaluazio- prozesu jarraitua eta etengabea, erreferentzia eta gidari batzuk, oinarri hezkuntza-prozesua, estrategiak eta neurriak etengabe hobetzea ahalbideratuko duena.

—Hezkuntza-prozesuak ebaluatzeak epe alde-tik hainbat alderdi kontuan hartzea eskatzen du: nola eragileak eta epe laburrekoak direnak hala epe luzekoak, esaterako, hezkuntza-ahaleginaren eragin soziala (eraldaketari dagokionez); halaber, prozesuaren eta egindako jardueren kalitatearen irizpideak hartuko dira kontuan.

### **2006-2010 ALDIRAKO EAE-KO HEZKUNTZA SISTEMA FORMALERAKO IRAUNKORTASUNeko INGURUMEN HEZKUNTZAKO PLANAREN JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-PROGRAMA**

Arestian adierazitako irizpideekin bat, jarraipen- eta ebaluazio-programak hauek konbinatzen ditu:

—2006-2010 aldiko IIHPren garapena aldizka berrikustea, ekiteko eta aurrera egiteko konpromiso osoa lortzeko tresna eragile gisa.

—Planaren programen eta neurrien edo konpromisoen emaitzak eta eraginkortasuna aztertzea.

—Planak bere helburu nagusia lortzeko (gizartearen gaineko eragina) zenbateraino lagundu duen zehaztea: ekintza nola aldatu den, ingurumen eta iraunkortasunaren alde.

Horretarako, *hiru elementu berezi* hauek hartzen ditu kontuan:

I. *Jarraipeneko urteko txostena edo oinarritzko memoria* prestatzea aldizka, IIHPren benetako ezartze- eta betetze-maila urtero jasotzeko.

II. *IIHPren adierazleen sistema*, urtean edo bi urtean behin zenbatetsi, eguneratu eta baliettsi beharrekoa.

III. EAeko Ingurumen-Adierazleen Sistemaren txertatu beharreko *adierazle berezia* (23.ena).

Ondoren garatuko ditugu elementuok:

### **I.**

#### **2006-2010 aldirako EAeko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planaren jarraipeneko urteko txostena**

Barrurako den oinarritzko memoria; bertan urtero jaso behar dira, planaren ezartze- eta gauzatzeko-maila; beraz, hauek bildu behar ditu:

—Gauzatutako eta/edo martxan jarritako neurrien eta konpromisoak.

—Hurrengo urtean bete beharreko konpromisoak, plangintza batean jasota, hau da, denboraren eta baliabideen arabera antolatuta.

—Interesgarritzat jotako beste ebaluazio-elementu eraginkor batzuk: urtean ikusitako oztopoak eta zailtasunak, neurriak aldatzeko proposamena...

## II.

### 2006-2010 aldirako EAEko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planaren adierazle berezien taula

Guztira, 13 adierazle zehaztu, azpi-adierazleak ere barne direla. Adierazle horiek guztiek hezkuntza-sistema formalean iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzak izan dituen aurrerapenak neurtzen eta zenbatesten saiatzen dira, IIHPtik eratorritako neurriak eta konpromisoak aplikatu direnetik.

#### 2006-2010 aldirako EAEko Hezkuntza Sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planaren adierazle-taula

1. Hezkuntza-komunitatearen ingurumen-sentiberatze eta iraunkortasuneko maila.
2. Ingurumen-kudeaketako sistemak dauzkaten ikastetxeen ehunekoa.
3. Eskolako Agenda 21, Unibertsitateko Agenda 21 edo iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako beste programa batzuetan murgilduta dauden ikastetxeen ehunekoa.
4. Eskolako Agenda 21 edo Unibertsitateko Agenda 21 ziurtatuta daukaten ikastetxeen (unibertsitatez kanpokoak eta unibertsitatekoak) ikastetxeen ehunekoa.
5. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren gaineko komunikazio- eta informazio-maila.
6. Ingurugela eta ingurumen hezkuntzako ekipamenduekiko ezagutza- eta asebetetze-maila.
7. IIHPtik eratorritako prestakuntza-planaren ezartze- eta betetze-maila.
8. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzan berrikuntza bultzatzeko proiektuen eta bitartekoen urteko kopurua.
9. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako koordinatzailearen figura daukaten ikastetxeen eta berritzeguneen ehunekoa.
10. Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari atxikitako izakundearen sareko atxikimenduak.
11. Eskolako Agenda 21, Unibertsitateko Agenda 21 edo iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako beste programa batzuetan hezkuntza-komunitateak duen parte-hartze maila.
12. EAEko Administrazioak IIHP martxan jartzeko eta betearazteko bideratu duen aurrekontuzukidura.
13. IIHParen lidergo eta garapenean inplikaturik dauden agenteen arteko koordinazioa.





### III. EAEko Ingurumen-adierazleen Sistematan txertatu beharreko adierazle berezia (23.ena)

Hezkuntza ez da azken helburua, ezpada bide bat beste zenbait helburu lortzeko. Hori horrela, 2006-2010 aldirako hezkuntza sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planak (IIHP) helburu ditu gizartearengan eragin, eta pertsonen eta gizartearen ekintzak eraldatu, ekintza horiek ingurumenari eta iraunkortasunari mesede egin diezaioten.

Hartara, IIHPren benetako eraginkortasuna epe luzera; baita ekintzen arloko beste zenbait plane-na ere, EAEko Ingurumen-adierazleek islatuko dute; izan ere, lurraldeko ingurumenaren egoera eta bilakaera islatzeko tresnak dira.

Gainera, *EAEko Ingurumen-adierazleen Sistematan beste adierazle bat, 23.ena, eranstea* proposatu da, ebaluatzeko elementu osagarri, iraunkortasunerantz aurrera egiteko beste bide bat bezala, *iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzarekin bereziki lotua*:

#### **Iraunkortasuneko 23. adierazalea: «Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntza EAEn»**

##### **Azpi-adierazle eratorriak:**

— Honelako prozesuetan murgildutako ikastetxeen urteko zenbakia eta ehunekoa:

- Eskolako Agenda 21.
- Unibertsitateko Agenda 21.
- Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzako beste programa batzuk.

— Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari atxikitako izakundearen sareko atxikimenduen urteko kopurua.

— Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzaren gaineko komunikazio- eta informazio-maila.

— Hezkuntza-komunitatearen ingurumen-sentiberatze eta iraunkortasuneko maila (derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko heziketa).

— Iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzari buruzko gizarte-hautematea.

# ERANSKINA

## DOKUMENTUA LANTZEKO PROZEDURA

Leku txiki askotan gauza txiki asko egiten dituzten pertsona txiki asko mundua alda dezakete

Dokumentu hau egiteak lan-teknikoa eta barne-hausnarketa eragiteaz gain, *EAEko iraunkortasuneko hezkuntza bultzatzean esku hartu duten hezkuntza komunitateko eta Administrazioako eragileen parte-hartze zehatza* eragin du.

Pertsonak eta erakundeak bi etapatan parte hartu dute:

- Lehenengo etapak, barne izaeradunak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso du. Dokumentuaren edukia egituratu, horri buruz hitz egin eta balioa emateko, zortzi lantegi egin dira.
- Bigarrenak, berriz, luzeenak, iraunkortasuneko ingurumen hezkuntzarekin zerikusia duten

persona, entitate eta erakundeek parte hartzea izan du helburu. Hartara, 68 pertsona eta/edo erakunderi dokumentu-zirriborro bat banatu zaie, ondoren, ekarpenak, proposamenak eta hausnarketak egiteko.

Gainera, behin betiko proposamena argitaratu eta gero, dokumentua EAEko Ingurumen-Batzordeak balioztatuko du 2005eko ekainaren 20an, *Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Estrategia EAEn* izenburupean.

Horretara, prozesua zehatz eta sakon garatu da, izan ere, helburu du *EAEko iraunkortasuneko hezkuntzarako* konpromiso estrategikoak eta ekintzako konpromisoak hartzeko oinarriak ezartzea, 2006-2010 aldirako EAEko hezkuntza sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana zehaztearen bidez.





# TERMINOEN GLOSATEGIA

Gauzen benetako esanahia aurkitzen  
da gauza bera beste hitz batzuen bidez  
esaten saiatzean

Charlie Chaplin

---

## Adierazlea

Adierazlea edo neurtzeko tresna, gai jakin baten inguruko aurrerapen-maila zenbatestea eta ebaluatzea ahalbidetzen duena.

EAEko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen hezkuntzako 2006-2010 Planean, adierazleen taulak erraztu egiten du plan horretatik eratorritako neurrien ezartze-maila eta zehaztutako helburuak lortzeko ematen duen laguntza ezagutzea.

---

## Agenda 21

Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapen Iraunkorrari buruz 1992an Rio de Janeiron egindako Konferentzian —Lurraren Goi-bilera— sortutako programa da, eta ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arteko lotura aztertu nahi du. XXI. mendeko garapen iraunkorrerako ekintza-plan globala da.

Era berean, tokiko komunitate guztiei dei egiten die beren Tokiko Agenda 21 sortzeko; udalerrri bakoitzerako plan eta ekintza zehatzak izan behar dituzte, eta Agenda 21en jarraibide orokorretan oinarritzen dira.

---

## Aztarna ekologikoa

Aztarna ekologikoak adierazten du nola eragiten dion gure bizimoduak inguruneari; hori jakiteko, urtean baliabide naturalak kontsumitzeko ditugun beharrak asetzeko eta sortutako hondakinak asimilatze behar diren lursail produktiboen azalera kalkulatu da.

William Rees eta Mathis Wackernagel kontzeptuaren aitzindariak honela definitzen dute: «erabilitako baliabideak produzitzeko eta bizi-maila jakin bat duten biztanleek sortutako hondakinak asimilatze behar den lurralde produktiboaren edo uretako ekosistemaren eremua, eremu hori dagoen lekuan dagoela ere».



---

### Balioetan heztea

Balioetan heztea da banakoen nahiz taldeen garapen- eta eraikuntza-prozesuetan parte hartzea.

Gaur egun balioetan heztea da hiritarrak trebatzea, hain zuzen ere, gure gizartearen erronkei erantzuteko gai izan, eta mundu justuagoa, integratzaileagoa, iraunkorra, bidezkoa eta kulturen artekoa eraikitze-ko konpromisoa hartuko duten hiritarrak.

Ingurumen-balioetan heztea da gizakien, gizartearen eta ingurumenaren arteko etika berri bat sustatzearen aldeko jarrerak eta balioak bultzatzea. Sistema antropozentrikoa —onuraren zerbitzuan eta merkatu lehiakor eta indibidualistan oinarritzen da, eta neurritz kanpoko balioa ematen die «edukitzean oinarritutako balioei»— ordezkatzeko prozesuan parte hartu nahi da; eta haren ordez sistema biozentrikoa sartu nahi da; bizitzaren zerbitzuan dago, maila orokorragoan, parte-hartzaileagoan; neurritsu, solidario eta harmoniatsu.

---

### Eskolako Agenda 21

Hezkuntza-komunitatearen konpromisoa da, ikastetxearen eta bere ingurunearen ingurumen-kalitatearen eta iraunkortasunaren alde lan egiteko. Oinarrizko osagaiak hiru dira: ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumen-iraunkortasuna, curriculum-berriztapena eta komunitateko parte-hartzea.

---

### Etengabeko ikaskuntza

Emaitzak, ezagutzak, eta gaitasunak ikuspegi pertsonal, hiritar edo sozialetik nahiz enpleguarekin zerikusia duen ikuspegitik etengabe hobetzeko egindako ikaskuntza-jarduera oro da.

Etengabeko ikaskuntzaren —bizitza osoan egiten den ikaskuntza formala, ez-formala eta informala— definizio zabala da hau.

---

### Hezkuntza edo ikasketa formala

Hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan gauzatzen da, eta diploma eta prestakuntza-maila aitortuak lortzera bideratuta dago.

---

### Hezkuntza edo ikasketa ez-formala

Hezkuntza- eta prestakuntza-sistema nagusiekiko paralelo egiten da, eta ez du ziurtagiri formalik ematen. Ikasketa-mota hau lantokian edo gizarte zibileko erakundearen eta taldeen jardueren bidez (gazteen erakundeak, sindikatuak edo alderdi politikoak) eskura daiteke. Sistema formalak osatzeko ezarritako erakunde edo zerbitzuen bidez ere eskura daiteke (adibidez, arte-, musika- edo kirol-ikastaroak edo azterketak prestatzeko klase partikularrak).

---

**Hezkuntza edo ikasketa informala**

Eguneroko bizitzaren osagarri naturala da. Ikasketa ez-formala eta formala ez bezala, ikasketa informala ez da ezinbestean nahitakoa, eta, horregatik, baliteke interesdunek berek positibotzat ez onartzea beren jakintza eta gaitasunetarako. Eguneroko bizimoduko jarduerekin —lana, familia eta aisialdiarekin zerkusia dutenak— lortzen da. Ez dago egituratuta eta, eskuarki, ez dakar egiaztatzerik.

---

**Hezkuntza-sistema**

Urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legean (LOGSE) ezarritakoaren arabera, hezkuntza-sistemak bere baitan hartzen ditu irakaskuntza orokorra eta irakaskuntza berezia.

Irakaskuntza orokorrak dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta maila ertaineko Lanbide-Heziketa), goi-mailako Lanbide-Heziketa eta Unibertsitate-Hezkuntza.

Irakaskuntza bereziak dira: irakaskuntza artistikoak eta hizkuntzen irakaskuntza.

---

**Holistikoa**

Errealitate bakoitza osatzen duten atalen baturaren osotasun desberdin gisa hartzea.

Diziplina anitzeko ikuspegia, ikuspegi globala integratzen bultzatzen duena, diziplina guztiekin lotura duena eta ekosistemikoa.

---

**Ingurugela**

Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak. Irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea dira, eta ingurumeneko hezkuntza-planak eta -programak koordinatzen dituzte EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren bidez sortu ziren, eta hala funtzionatzen dute.

Zeharkakotasunaren metodologian eta garapen iraunkorraren helburuan oinarritzen dute beren lana.

---

**Ingurumen hezkuntza**

«Ingurumen hezkuntza etengabeko prozesu bat da; prozesu horretan, gizabanakoak eta komunitateak beren inguruaz ohartzen dira, eta, bana-bana nahiz taldean, egungo eta etorkizuneko ingurumen-arazoak konpontzeko beharrezkoak diren ezagutzak, balioak, trebetasunak, esperientzia eta ausardia eskuratuko dituzte» (Ingurumenari buruzko Hezkuntza eta Prestakuntzako Nazioarteko Biltzarra. Mosku, 1987).

Ingurumen hezkuntza pentsamendu- eta ekintza-korrontea da, nazioartera zabaltzen dena; 70eko hamarkadatik aurrera indar handia



hartu zuen, izan ere, habitat naturalak suntsitzea eta ingurumen-kalitatearen degradazioa gizarte-arazotzat jotzen hasi ziren.

---

#### Iraunkortasuneko hezkuntza

Hori garapen iraunkorrerako baldintza da, gizabanakoak eta gizarteko taldeak gure bizimoduari buruzko hausnarketa egiteko, informazioa eskuan izanda erabakiak hartzeko eta mundu iraunkorra-goia lortzeko aurrera egiteko bideak ezartzeko motibatzen, prestatzen eta inplikarazten dituen neurrian.

Iraunkortasuneko errealitatea eraldatzeko tresna.

---

#### Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada

UNESCOren gidaritzapean iraunkortasuneko hezkuntzan lan egiteko Nazio Batuen Batzar Nagusiak aukeratutako epea (2005-2014). 2002ko Johannesburgeko Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi-bileran egindako gomendio baten ondorioz sortu zen.

---

#### Neurria edo konpromisoa

2006-2010 aldirako EAEko hezkuntza-sistema formaleko Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Planetik eratorritako jardueren multzoa, zehaztutako helburuak lortzeko garatu beharrekoa.

---

#### Zeharkakoa

Alde batetik bestera dagoena edo hedatzen dena.

Ingurumen hezkuntza zeharkako ardatza da, eta, beraz, hezkuntza-maila guztietan eta hezkuntza-programaren esparru guztietatik landu behar da.

---

# ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alfaro, M.C.; Asín, J.; Calvo, S.; Callaghan, P.; Castro, R. de; Chamorro, M.J.; Dueñas, J.C.; Fernández-Burgueño, V.; González, E.; Guerrero, M.P.; Jan, J.P. de; Monrrós, A.; Rodríguez, F.; Sintés, M. (argit.) 1999. *Libro blanco de la Educación Ambiental en España*. Ingurumen Ministerioa, Madril. 128 orrialde.
- Asín, J.; San Agustín, J.L.; Alonso, M.; Calvo, S.; Pardo, M.; Irigalba, A.C.; Vilanueva, C. & Weissmann, H. (argit.) 2001. *Estrategia Navarra de Educación Ambiental*. Ingurumena, Nafarroako Gobernua. 133 orrialde.
- Cabrera, M. & López Martín, F. (argit.) 2003. *Estrategia Aragonesa de Educación Ambiental (EAREA)*. Ingurumen Hezkuntzako zerbitzua, Aragoiko Gobernua. 95+31 orrialde.
- Calvo Roy, S. & García Antón, E. (argit.) 1996. *Seminarios permanentes de educación ambiental*. Ingurumen Ministerioa, Madril. 248 orrialde.
- Calvo Roy, S. & García Antón, E. (argit.) 1997. *Educación ambiental para el desarrollo sostenible*. Ingurumen Ministerioa, Madril. 7 liburuki.
- CEE Working Group. 2004. *Measuring effectiveness: evaluation in education for sustainable development*. Council for Environmental Education, Reading (UK). 12 orrialde.
- Cohen, J. & James, S.; Blewitt, J. 2002. *Learning to last: skills, sustainability and strategy*. Learning and Skills Development Agency.
- Colom Cañellas, A.J. & Sureda Negre, J. 1989. *Pedagogía ambiental*. CEAC, Bartzelona. 243 orrialde.
- Nekazaritza, Ur eta Ingurumen Saila 2003. *Estrategia de Educación Ambiental, Región de Murcia. Primer Documento de Debate*. Murtziako Eskualdea. 113 orrialde.
- Ingurumen Saila. 2000. *Estrategia de educación ambiental en Castilla y León: un reto colectivo. Eztabaidarako dokumentua*. Ingurumen Saila, Gaztela eta Leongo Junta.
- Ingurumen Saila. 2002. *Estrategia de Educación Ambiental en Cantabria. Eztabaidarako dokumentua*. Kantabriako Gobernua. 175 orrialde.
- Eusko Jaurlaritzako Kontseilua. 2001. *EAEko iraunkortasunaren Konpromisoa*. Eusko Jaurlaritza.



- Conselleria de Medi Ambient. 2003. *Estratègia Balear d'Educació Ambiental*. Govern de les Illes Balears.
- Cowie, B.; Eames, C.; Arlow, A.; Bolstad, R.; Barker, M.; Keown, P.; Edwards, R. & Coll, R. 2004. *Environmental education in New Zealand schools: Research into current practice and future possibilities*. Ministry of Education, New Zealand. 137 orrialde.
- Delors, J. (et al.) 1996. *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI. Compendio*. UNESCO edizioak. 45 orrialde.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 2003. *Ingurumen-hezkuntzaren integrazioa EAE-ko Derrigorrezko Lehen eta Bigarren hezkuntzan: diagnostikoa*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Nagusia.
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 2004. *Ingurumen-adierazleak 2004; aurrera egiteko neurtuz*. Eusko Jaurlaritzak.
- IHOBE eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 2004. Ekobarometro soziala 2004. EAEko gizarteak ingurumenari buruz duen ikuspegia.
- Department of the Environment, Transport and the Regions, Erresuma Batua. 1999. *Sustainable Development Education Panel; First Annual Report 1998*. London.
- Ingurumen hezkuntzako Zuzendaritza Nagusia. CMA. 2003. *Estrategia Andaluza de Educación Ambiental*. Ingurumen Saila eta Hezkuntza eta Zientzien Saila, Andaluziako Junta. 122 orrialde.
- García, J.E. 2002.: *es posible una Educación Ambiental integradora? Monográficos Investigación en la Escuela, 46*.
- Gil Pérez, D.; Vilches, A. *Garapen iraunkorrerako hezkuntza*. Universitat de València.
- González, E. 2003. *Hacia un Decenio de la Educación para el Desarrollo Sustentable. Desarrollo Sustentable, Vol. 1, 5- 16:19*. Mexikoko Gobernua, Mexiko.
- Hesselink, F.; van Kempen, P.P.; Wals, A. 2000. *ESDebate. International debate on education for sustainable development*. IUCN Commission on Educación and Communication (CEC). 74 orrialde.
- Hoffman, J. & Thomson, G. 2003. *Measuring the success of environmental education*. Kanada: Network for Environmental Education. 74 orrialde.
- Houghton, E. (Argit.) 2003. *Environmental Education Notario. Greening the Way Notario Learns. A public Strategic Plan for Environmental and Sustainability Education*. Environmental Education Notario (EEON). 127 orrialde.
- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa 2002. *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006). Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategia (2002-2020)*. Eusko Jaurlaritzak.
- IHOBE. 2003. *2003ko Aste Berdea: «El papel de la Universidad en el Desarrollo Sostenible» foroko ondorioak*. IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Ingurugela, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 2002. *Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida*. Eusko Jaurlaritzak. 40 orrialde.

- Ingurugela. 2003. *EAEko Ingurumen Hezkuntzako III. Jardunaldiak*. Eusko Jaurlaritza
- Institut d'Educació. 1999. *La educación, clave para el conocimiento y la convivencia: proyecto educativo de ciudad./L'educació, clau per al coneixement i la convivència: projecte educatiu de ciutat*. Ajuntament de Barcelona.
- Jull, P. 2003. *Evaluating Environmental Education and Outreach Programs*. State Department of Ecology, Washington. 56 orrialde.
- Lecumberri, G. & Arbuniés, J. 2001. *Ingurumen hezkuntzako programak egiteko gida*. Nafarroako UNESCO zentroa. 160 orrialde.
- Martí Mainar, P. (argit.) 2003. *ECEA: Estratègia Catalana d'Educació Ambiental. una eina per a la comunicació i la participació: document marc*. Departament de Medi Ambiente, Generalitat de Catalunya, Bartzelona. 133 orrialde.
- Martínez Huertas, J. 1996. *Ingurugiro-hezkuntza EAEn. Egoera eta aurreikuspenak*. Ingurugiro Sailordetza, Eusko Jaurlaritza. 120+105 orrialde.
- McDuff, M. 2002. Needs Assessment for Participatory Evaluation of Environmental Education Programs. *Applied Environmental Education and Communication* 1-25:36.
- McKeown, R.; Hopkins, C.; Rizzi, R.; Christalbridge, M. 2002. *Education for Sustainable Development Toolkit*. Energy, Environment and Resources Center, University of Tennessee. 142 orrialde.
- Mette de Viser, A. 2002. *Sustainable is more than able- Viewpoints on education for sustainability*. Network for Ecological Education and Practice, Denmark. 44 orrialde.
- Hezkuntza Ministerioa. 1990. *Urriaren 3ko 1/1990Legea, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea*.
- Ingurumen Ministerioa. 1999. *Libro blanco de la educación ambiental en España en pocas palabras*. Ingurumeneko Idazkaritza Orokorra, Ingurumen Ministerioa. 50 orrialde.
- Novo, M. 1995. *La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*. Universitat, Madril. 280 orrialde.
- Nazio Batuen Erakundea (NBE). 1992. *Agenda 21*. Lurraren Goi-bilera Rio de Janeiro.
- Nazio Batuen Erakundea (NBE). 2000. *Milurtekoko Deklarazioa*. Nazio Batuen Batzar Orokorra.
- Nazio Batuen Erakundea (NBE). 2002. *Garapen Iraunkorraren Munduko Goi-bilerako txostena*. Gara-pen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi-bilera, Johannesburg.
- Nazio Batuen Erakundea (NBE). 2002. *2002ko abenduaren 20ko 57/254 ebazpena*. Nazio Batuen Batzar Orokorra.
- Parliamentary Commissioner for the Environment (PCE). 2002. *Creating Our Future: Sustainable Development for New Zealand*. Wellington: PCE. 182 orrialde.
- Parliamentary Commissioner for the Environment (PCE). 2004. *See change: learning and education for sustainability*. Wellington: PCE. 160 orrialde.
- Pereira Cordido, J.M.; Gutiérrez Roger, X. & Rodríguez Regina, S. (argit.) 2000. *Estratègia Galega d'Educació Ambiental*. Consellería de Medio Ambiente, Xunta de Galicia. 119 orrialde.
- Rojas, J. 2004. *Garapen Iraunkorrerako Ingurumen hezkuntzako 1. Biltzarra* Kordobako probintzia, Argentina.



- Ruiz, D.; Benayas, J.; Gutiérrez, J. 2000. *Documentos de estrategias de educación ambiental: distintos estilos para un mismo fin. Ciclos, cuadernos de comunicación, interpretación y educación ambiental 7: 8-12.*
- Rush, M.; Wharfe, L.; Collins, H.; Thomas, K. et al. 1999. *Towards a set of principles for effective environmental education strategies and programmes and their evaluation.* Ministry of Education, New Zealand.
- Seifert, M.; Steiner, R. & Tschapka, J. (argit.) 2000. *La Torre de Babel. Propuestas y métodos de educación ambiental a través de Europa.* Gea, Valladolid. 191 orrialde.
- Stevenson, R. 2002 Education and sustainable development. *In: Tilbury, D. et al, eds. Education and sustainability: responding to the global challenge.* Gland, Switzerland and Cambridge, UK: Commission on Education and Communication, IUCN: 187-196.
- Stokking H.; Van Aert, L.; Meilberg, W. & Kaskens, A. 1999. Evaluating environmental education. IUCN Commission on Educación and Communication (CEC).
- Sustainable City Team. 2003. *Learning to last in Bristol. Bristol's Education for Sustainable Development Strategy.* Bristol City Council. 31 orrialde.
- Sustainable Development Education Panel. 2003. *Learning to last. The Government's Sustainable Development Education Strategy for England. Draft presented to Ministers by the Sustainable Development Education Panel.* Department for Environment, Food and Rural Affairs, UK. 19 orrialde.
- Tilbury, D. et al, eds. (Argit.) 2002. *Education and sustainability: responding to the global challenge.* Gland, Switzerland and Cambridge, UK: Commission on Education and Communication, IUCN:
- Tilbury, D.; Stevenson, R.; Fien, J.; Schreuder, D. 2002. *Education and Sustainability. Responding to the Global Challenge.* IUCN Commission on Educación and Communication (CEC).
- UNESCO. 1997. *Declaration of the responsibilities of present generations towards future generations.*
- UNESCO. 1997. *Education for a sustainable future: a transdisciplinary vision for concerted action.* Paris: UNESCO.
- UNESCO. 2002. *Education for sustainability. From Rio to Johannesburg: lessons learnt from a decade of commitment.* Paris: UNESCO.
- UNESCO. 2003. *Decade of Education for Sustainable Development (January 2005-December 2014). Framework for a Draft Internacional Implementation Écheme. Draft Only.* United Nations. 18 orrialde.
- UNESCO. 2004. *Education for Sustainable Development - a Transdisciplinary Approach to Education: An Instrument for Action.* Section for Education for Sustainable Development, UNESCO.
- UNEP-UNESCO. 1976. *The Belgrado Charter: a global framework for environmental education. Connect (UNESCO-UNEP Environmental Education Newsletter).* 1 (1): 1-9.
- UNEP-UNESCO. 1978. *The Tbilisi Declaration. Connect (UNESCO-UNEP Environmental Education Newsletter).* 3 (1): 1-9.



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 84-457-2508-4



9 788445 725085

Salneurria: 21 €